

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

“AMA-HIZKUNTZAREN ERAGINA HIRUGARREN HIZKUNTZA BAT IKASTERAKO ORDUAN”

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Pereda García, Myriam

ZUZENDARIA: Larraza Arnanz, Saioa

2019/2020

LABURPENA

Gradu Amaierako Lan honen helburua da Euskadi bezalako eremu elebidun batean hirugarren hizkuntza bat ikasterako orduan ama-hizkuntzak duen eragina aztertzea. Horretarako, Tokieder eskola publikoko (Vitoria-Gasteiz) Lehen Hezkuntzako 6.mailako 8 ikasle ausaz hautatu dira (horietako lauk ama-hizkuntza euskara eta beste laurek gaztelania dutenak) eta haien ingelesezko ahozko gaitasuna ikertu da. Ikasleei hiru zeregin eskatu zaizkie. Batetik, eurek betetzeko galdetegia, beren hizkuntza-ohiturak eta ezagutza-maila neurtzeko. Bestetik, gurasoek betetzeko galdetegia. Eta azkenik, ingelesez zein gaztelaniaz eginiko ahozko elkarrizketa indibiduala.

Hitz gakoak: *ama-hizkuntza, eleaniztasuna, H3ren ikaskuntza, Euskadiko egoera linguistikoa.*

RESUMEN

El propósito de este Trabajo de Fin de Grado es analizar la influencia de la lengua materna a la hora de aprender una tercera lengua en un territorio bilingüe como es Euskadi. Para ello, se han escogido al azar ocho alumnas y alumnos de 6º de Primaria de la escuela pública Tokieder (Vitoria-Gasteiz), a las y los cuales se les evalúa su competencia oral en inglés. A los participantes se les ha pedido que realicen tres tareas. La primera, un cuestionario dirigido a ellos mismos, para conocer sus hábitos lingüísticos y su nivel de conocimiento. La segunda, un cuestionario dirigido a sus padres. Y, por último, una entrevista individual oral con cada uno de ellos en inglés y en castellano.

Palabras clave: *lengua materna, plurilingüismo, aprendizaje de L3, situación lingüística de Euskadi.*

ABSTRACT

The aim of this end-of-degree project is to analyse the influence of the mother tongue in a bilingual region as Basque Country when it comes to learning a third language. To do that, eight 6th grade primary students of the Tokieder public school (Vitoria-Gasteiz) were randomly selected, and their English oral competence was evaluated. Participants were asked to do three different tasks. The first, a survey for themselves, to know their linguistic habits and their language knowledge. The second, a survey for their parents. And finally, an individual oral interview in English and Spanish.

Keywords: *mother tongue, multilingualism, L3 learning, Basque Country's linguistic situation.*

AURKIBIDEA

1. SARRERA	5
2. JUSTIFIKAZIOA	6
3. HELBURUAK	7
4. MARKO TEORIKOA	8
4.1. ELEBAKARTASUNA ETA ELEBITASUNA KOKATZEN	8
4.2. ELEANIZTASUNAREN GARRANTZIA	10
4.3. ELEANIZTASUNA EUSKAL HERRIAN	11
4.4. ELEANIZTASUNA EGUNGO HEZKUNTZA LEGEDIAN	13
4.5. ELEANIZTASUNA IRAKASTEN.....	14
4.6. EGUNGO ERRONKA: HIZKUNTZEN TRATAERA INTEGRATUA.....	16
5. METODOA	19
5.1. JAKINAREN GAINEKO BAIMENA.....	19
5.2. IKASLEAK.....	19
5.3. GALDETEGIAK.....	20
5.3.1. IKASLEARENTZAKO GALDETEGIA	20
5.3.2. GURASOENTZAKO GALDETEGIA	20
5.4. ARIKETA: ELKARRIZKETA GIDATUA	20
6. EMAITZAK	22
6.1. GALDETEGIAK.....	22
6.1.1. IKASLEARENTZAKO GALDETEGIA	22
6.1.2. GURASOENTZAKO GALDETEGIA	27
6.2. ARIKETA.....	30
6.2.1. ELKARRIZKETAREN LUZERA	31
6.2.2. ERABILITAKO MAKULUAK	31
6.2.3. ELKARRIZKETARAKO AUTONOMIA-MAILA	32
6.2.4. TESTURATZE-MEKANISMOAK (KOHESIOA)	33
6.2.4.1. Testu-antolatzaileak	33

6.2.4.2.	Lexikoa	34
6.2.5.	ALDERDI GRAMATIKALA.....	34
6.2.6.	ALDERDI FONETIKOA	35
7.	ONDORIOAK.....	36
8.	HOBETZEKO PROPOSAMENAK.....	38
9.	BIBLIOGRAFIA	39
10.	ERANSKINAK.....	41
10.1.	ERANSKINA I: JAKINAREN GAINEN BAIMENA.....	41
10.2.	ERANSKINA II: IKASLEAREN ZAKO GALDETEGIA.....	43
10.3.	ERANSKINA III: GURASOEN ZAKO GALDETEGIA.....	46
10.4.	ERANSKINA IV: ELKARRIZKETA GIDATUAREN GIDOIA.....	48
10.5.	ERANSKINA V: GRABAZIOEN TRANSKRIPZIOAK.....	49
10.5.1.	H1_EUS_1 (10'01").....	49
10.5.2.	H1_EUS_2 (9'30").....	51
10.5.3.	H1_EUS_3 (7'46").....	53
10.5.4.	H1_EUS_4 (6'31").....	55
10.5.5.	H1_GAZ_1 (7'15").....	57
10.5.6.	H1_GAZ_2 (9'35").....	59
10.5.7.	H1_GAZ_3 (7'06").....	61
10.5.8.	H1_GAZ_4 (8'31").....	63

1. SARRERA

Jarraian aurkezten den dokumentua Lehen Hezkuntzako Gradu ikasle baten Gradu Amaierako Lana da. Euskal Herriko Unibertsitateko Gasteizko Hezkuntza eta Kirol Fakultatean adostutakoaren arabera, Gradu Amaierako Lana 12 kredituko derrigorrezko ikasgaia da eta horren bidez, ikasle bakoitzak erakutsi behar du graduan eskuratutako gaitasunak bereganatu dituela.

Jarduera Fisikoa eta Kirol Zientzien gradua ikasten ari nintzela, Milanera (Italia) joan nintzen Erasmusean hirugarren maila egitera. Han ezagutzen ez nuen hizkuntza bateko kultura, gizarte eta hiri batean bizitzen hasi eta ikasi behar izan nuen. Italiara pixkanaka ikasten nindoala, hizkuntzen inguruan hausnartzen hasi nintzen metroko bidaiak luze galduetan; nire ama-hizkuntza gaztelania izanda (nahiz eta amak euskaraz jakin) nola nik txikitatik euskaraz eskolan ikasi dudana, eta nazioarteko hizkuntza bezala ingelesak duen garrantziaz, besteak beste. Beraz, behin Lehen Hezkuntzako gradu honetako GrALaren gai posibleen zerrenda ikusita, argi neukan hizkuntzen irakaskuntzaren inguruzko gaia izan behar zuela nirea. Horrela, metro barruan sorturiko hausnarketa, zalantza eta kezka horiek berriro azalera ekarri, eta garatu eta osatzeko aukera paregabea izan dut lan honi esker.

Behin gaia aukeratuta, erabaki dut Euskal Herria bezalako lurralde eleanitz batean ama-hizkuntzaren eragina aztertzea, hirugarren hizkuntza bat ikasterako orduan bereziki. Gai oso interesgarria eta mamitsua iruditzen zait GrALa bezalako lan bat egiten igaro behar diren orduak gustura eta motibazioz blai igarotzeko. Batetik, gure lurraldean daukagun egoera linguistiko elebiduna oso erakargarria den eta joko asko ematen duen aldetik, lanak bertan barneratzeko aukera ematen didalako. Eta bestetik, geroz eta indar zein garrantzia handiagoa duen eleaniztasun kontzeptuan nolabait murgiltzeko aukera ematen didalako ere, hizkuntzen irakaskuntzaren inguruzko nire ezagutzak handiagotuz doazen heinean.

2. JUSTIFIKAZIOA

Gaur egungo gizarteetan eleaniztasunaren gaia hartzen ari den garrantzia oso nabaria da. Geroz eta globalizatuagoa dagoen mundu batean bizi gara, non leku batetik bestera komunikatzeko distantziak asko murriztu diren. Gauzak horrela, gaur egungo eskoletan hizkuntzen irakaskuntza dugu garrantzia handiko erronka, eta euskal eskola ez da horretan gutxiago izango.

Erronka horri erantzun egokia eman behar zaio. Horretarako, alde batetik, hizkuntzen irakaskuntza geroz eta adin goiztiarragoan hasi ohi da. Beste aldetik, eskola askotan hizkuntzak era integratuan lantzen dira, momentu berean ikasten ari diren hizkuntzak nolabaiteko antolamendua eta koordinazioa izanez haien artean. Proposamen horrek hizkuntzak bereganatzen eta ikasten asko laguntzen du. Gainera, hizkuntzen bidez komunikatzeko gaitasuna garatzeak inoiz baino indar eta garrantzia handiagoa hartu du eskoletako helburu bezala; etorkizuneko ikasleak ahalik eta komunikatzaile onenak izateko xedearekin.

Eleaniztasunaren garrantzia nabarmenduta, ez dugu albo batera utzi behar Euskal Herriko egoera soziolinguistikoa eta horrek azken hamarkadetan izandako ibilbidea. Beraz, marko teorikoan lurralde honetako testuinguru linguistikoa azalduko da, euskal eskolen eredu zein programak azalduz. Ikerketa hau egiterako orduan hizkuntzei ematen dieten garrantziari buruz -besteak beste- galdetuko zaie parte-hartzaileei, eta horrek irakaskuntzan izan dezakeen eragina ulertzen saiatuko naiz era berean.

Gainera, gizarte globalizatu batean gaudenez, ama-hizkuntza ezberdinak aurki ditzakegu gela bereko ikasleen artean. Gure kasuan, dena dela, ikerketa aurrera eramateko, lurraldeko bi hizkuntza ofizialetan soilik jarriko dugu arreta: euskara eta gaztelania. Bi ama-hizkuntza horietan oinarriturik, horiek hirugarren hizkuntza (ingelesa) ikasteko orduan duten eragina aztertzen ahaleginduko naiz.

3. HELBURUAK

Gradu Amaierako Lan honen helburu nagusia da Lehen Hezkuntzako ikasleen ama-hizkuntzaren eragina aztertzea hirugarren hizkuntza bat ikasterako orduan. Horretarako, Gasteizko Tokieder Ikastola publikoko zortzi ikaslerekin egin dut ikerketa. Zortzi ikasle horietatik lauk ama-hizkuntza euskara dute eta beste laurek gaztelania. Elkarrizketa baten bitartez, zortzi ikasleen ingelesezko zein gaztelaniazko ahozko gaitasuna aztertu da; eta horretan lortutako datuei esker emaitza eta ondorio batzuk eskainiko dira.

Proposatuko ikerketa hau Cenoz eta Valenciak zenbait artikulutan (1994, 1995) aipaturiko hipotesi eta argudioetatik sortzen da. Horien artean nagusia hau litzateke: ama-hizkuntza euskara duten ikasleek emaitza hobekak eskuratzen dituzte ingelesa bezalako hirugarren hizkuntza batean ama-hizkuntza gaztelania dutenekin alderatuz gero. Hipotesi indartsu horrek hausnartzera eraman ninduen, eta esan dezaket hori dela nire ikerketaren abiapuntu nagusia. Aipatutako hipotesi hori frogatzea izango litzateke nire ikerketaren helburu nagusia, baina bidetik badira beste hainbat jomuga eta egiteko ere.

Zeharkako beste helburu bat inkesta ezberdinak betetzea eta horiek aztertzea da, ikasleen profil soziolinguistiko zehatza jasotze aldera. Ikasle parte-hartzaile bakoitzak eta beren guraso zein tutoreek inkesta ezberdinak beteko dituzte hizkuntzen inguruko euren jarrerak eta motibazioak ezagutzeko.

Hurrengoko helburua laginaren gaztelaniazko zein ingelesezko ahozko gaitasuna neurtzea izango da. Horretarako, Gabonei buruzko elkarrizketa gidatua burutu da ikasle bakoitzarekin. Ahozko gaitasun horrek bakoitzak bi hizkuntza horietan duten "maila" erakutsiko digu, geroago aztertuko dena ama-hizkuntzaren eragina ikusi eta konprobatu ahal izateko. Gainera, emaitza horiek inkestan jasotako datuekin alderatuko dira, euren artean dagoen harremana ezagutzeko.

4. MARKO TEORIKOA

4.1. ELEBAKARTASUNA ETA ELEBITASUNA KOKATZEN

Munduan 7.000 milioi biztanle inguru bizi gara 250 bat herrialdetan banaturik, eta hauek 6.000 hizkuntza baino gehiago hitz egiten dituzte. Orduan, pentsa dezagun; gaur egungo biztanleetatik zenbat izango dira elebakarrak? Zenbat herrialdetan hitz egiten da soilik hizkuntza bakarra? Gaur egun elebakarra izatea salbuespentzat har liteke ia, gero eta pertsona gehiago delako gai hizkuntza bat baino gehiago erabiltzeko, egoera bakoitzarentzat aproposena dena aukeratuz.

Apraiz eta besteren (2012) esanetan, egungo errealitate eleaniztun horrek eskatzen du hizkuntzaren ikuspegi bat non ezinbestean pertsonen kulturantzatasun eta eleaniztasunaren kompetentzia garatu behar den. Kompetentzia horrek bizi garen mundu globalizatu honen komunikazioa erraztuko du. Gizakiek komunikatzeko daukagun erarik konplexu eta nagusia hizkuntzak dira. Hizkuntza bat bereganatzeko hizkuntza beraren mekanismo formalak ezagutu behar dira, baita komunikatzeko instrumentu bat bezala erabili ere (Bustos Caparrós, 2009).

Cenoz eta Valenciak (1995) elebitasunaren kontzeptura hurbiltzen gaituzte. Hamers eta Blanc-entzat (in Espi, 1996) **elebitasuna** bi hizkuntza ukipen-egoeran eta, beraz, elkarreraginean erabiltzeko moduko bi kode dituen komunitatearen egoera da. Hortaz, izaera multidimentsionala duen fenomeno konplexua da (Hamers eta Blanc, 1989; in Cenoz eta Valencia, 1995). Hamers eta Blanc-ek (in Espi, 1996) bost dimentsio edo irizpide proposatzen dituzte **elebitasun mota** ezberdinak ezartzeko. Hurrengoko taulan ikus daitezke zeintzuk diren horiek:

ELEBITASUN MOTAK: Hamers eta Blanc (in Espi, 1996)	
Pentsamendu-hizkuntza erlazioa	Elebitasun konposatua
	Elebitasun koordinatua
Bigarren hizkuntzan lortutako gaitasuna	Elebitasun orekatua
	Elebitasun menderatzailea
Lorpen-adina	Elebitasun goiztiarra
	Hautzaroko elebitasuna
	Nerabazaroko elebitasuna
	Helduaroko elebitasuna
Bi hizkuntzen estatus soziokulturala	Elebitasun gehitzailea
	Elebitasun kentzailea
Kultur identitate edo atxikimendua	Elebitasun bikulturala

	Elebitasun monokulturala
	Elebitasun akulturala
	Elebitasun anomikoa

Taula 1. Elebitasun motak.

Ikus daitekeenez, elebitasunaren dimentsio bat testuinguru edo estatus soziokulturala da, eta dimentsio honen barruan Hamers eta Blanc-ek egin zuten bezala, aipatu behar da 1974an Lambertek egindako bereizketa (in Cenoz eta Valencia, 1995): elebitasun gehigarria eta elebitasun kentzailea. **Elebitasun gehigarrian**, bigarren hizkuntza (H2) bat bereganatzeak ez du negatiboki eragiten lehen hizkuntzaren (H1) gaitasun sozial eta kognitiboen garapenean. Hau da, balore positiboak eransten zaizkie bi hizkuntzei. Bi hizkuntzak dira gizartean estimatuak, elkarren osagarri eta garapen armonikoan (Espí, 1996). **Elebitasun kentzailean**, aldiz, bi hizkuntzek haien artean lehiatzen dute, eta H2a bereganatzeak H1a kaltetzen du, hau da, H2a hobesten da. Elebitasun hau gertatzen da askotan H1ari balio handirik ematen ez zaion komunitateetan. Hau da, elebitasun gehigarrian bigarren hizkuntza elebiduna izateko ikasten da, eta kentzailean bigarrena lehen hizkuntza ordezkatzeko eskuratzen da.

Testuinguru soziokultural horren barruan esparru ezberdinak bereiz daitezke: testuinguru familiarra, eskolakoa eta geografikoa. Esparru horietan ematen den hizkuntzen erabilera, balorazio eta ezagutzek eragin handia izango dute elebidunaren garapen kognitibo eta sozialean; baita bi mota horien artean zein elebitasun mota garatuko duen erabakitzeke ere.

Testuinguru familiarrari dagokionez, Cenoz eta Valenciak (1995) aipatzen dute gurasoek hizkuntzen inguruan dituzten balorazio eta ezagutzek eragina izango dutela. Batez ere, amaren garrantzia azpimarratzen da, umeen hazkundean izaten duen rol sinbolikoagatik. Eskolako testuinguruak ere ondorio kognitibo eta sozialak ditu. H1 hizkuntza minoritario bat duten horientzat, garrantzitsua izango da hizkuntza hori eskolan ondo baloratua egotea baita eskolako komunikazio-hizkuntza izatea ere.

Azken urteetan, hainbat ikerketa burutu dira elebitasunak umeen garapen kognitibo eta sozialean duen eragina aztertzeke. Nahiz eta emaitza guztiak ez datozen bat, gehienek elebitasunaren eragin positiboa nabarmentzen dute.

Eragin positibo hori azaltzen duen beste frog bat **Cumminsen atalasearen hipotesia** (1976; in Cenoz eta Valencia, 1994; in Fessi, 2015) da. Hipotesi horrek hurrengo ideia babesten du: elebitasunean inplikaturik dauden bi hizkuntzen kompetentzia maila altua bada, eragin kognitibo positiboa izango du pertsonarengan. Aldiz, hiztunak hizkuntzetan duen kompetentzia maila baxua izanez gero, eragin

kognitibo negatiboak izango ditu. Eta horrela, Cumminsen hipotesi honen arabera, hizkuntza batean jasotako instrukzioa eraginkorra bada, beste hizkuntzetara transferitu daiteke.

Hori gutxi balitz, elebitasunak beste hizkuntza batzuk ikasten laguntzen duen sinesmen orokortua enpirikoki konfirmatu da 1960. urteaz geroztik egindako hainbat ikerketatan. Horren adibide da Cenoz eta Valenciak 1989-1990ko ikasturtean Gipuzkoako 321 ikaslerekin burututako ikerketa. Euskara-gaztelania ikasle elebidunen ingeles maila neurtu zen bertan, eta emaitzak aztertuz, elebitasunaren eragin positiboa oso nabaria izan zen hirugarren hizkuntza bat ikasterako orduan. Gainera, aipatzekoa da ama-hizkuntza euskara zutenek emaitza hobekak eskuratu zituztela.

Azken urteotan, Europako harreman ekonomiko eta kulturalak bateratu eta areagotzeko prozesuak herritar eleaniztun bihurtzeko beharra sortzen ari da, bere herrialdeko hizkuntzez gain, atzerriko beste hizkuntza batzuetan erraztasunez moldatzeko gai izango dena (Cenoz eta Valencia, 1995). Horrek, elebakartasuna eta elebitasuna gainditzera eraman gaitu, eleaniztasunaren mesedetan.

4.2. ELEANIZTASUNAREN GARRANTZIA

Globalizazio, herritarren mugikortasun eta atzerriko hizkuntzak ikasteko beharrari esker **eleaniztasuna** ikertzeko interesa asko hazi da azkenaldian. Hezkuntzaren bitartez haurrak elebidun edo eleanitz bihurtzea, azken batean, gizartearen beharrizan edo eskakizunen ondorioa da.

Globalizazio prozesua etengabe aurrera doa, horregatik errealitate berrietara moldatzeko asmoz, atzerriko hizkuntza baten irakaskuntza gaur egungo gizartearen beharra bihurtu da, eta ez soilik gizarte-klase sozial bati eransten zaiona. Etengabe gora eta behera ari diren aldaketa sozial eta politikoez eragina izan dute hezkuntza curriculumean, hizkuntza gehiagoren irakaskuntza txertatuz (Moreno, 2010). Gainera, hizkuntzen garrantziaren gaineko kontzientzia handiagotuz doa pertsonengan: hizkuntzek berezko funtzioa daukatela pertsonen garapenean. Aniztasun kulturala eta kulturarteko hizketa bermatzen dute, baita guztiontzako hezkuntza lortzen zein ondare kulturala kontserbatzen lagundu ere (Moreno, 2010).

Ama-hizkuntzaz gain atzerriko beste hizkuntza batzuk ikastearen arrazoiak asko dira. Besteak beste, gure inguruguru soziala zabaldu izana (internetari esker herrialdeen arteko mugak gaindituz), ematen diren ikasle-truke eta langile zirkulazioa, lanpostua aurkitzeko aukera gehiago, beste kultura batzuk ulertu eta errespetatzeari mesede

egitea, etab. (Morenok, 2010). Azken finean, hizkuntzen arteko elkarbizitza armoniatsua da eleanistasunak bilatzen duena.

4.3. ELEANIZTASUNA EUSKAL HERRIAN

Atal honetan, **Euskal Herriaren kasua** azalduko da, non hiru hizkuntza ofizial egoteak (euskara, gaztelania, frantsesa) nolabaiteko elebitasuna zein eleaniztasuna eragiten duen bertako herritarrengan. Egun, euskaraz mintzatzen diren heldu guztiak dira euskara-gaztelania edota euskara-frantses elebidun, eta askotan hiru hizkuntzetan eleanitz. Hori gutxi balitz, egun gurean oso hedatua dagoen atzerriko hizkuntza ere gehitu behar zaio horri. Euskal Herriko eskoletan ingelesa da maizen irakasten den atzerriko hizkuntza, eta ikasle elebidunen kasuan, hori hirugarren hizkuntza (H3) bihurtuko dela nabarmentzea garrantzitsua da. Eleaniztasunak, beraz, egina du bere lekua gurean.

Horrenbestez, Euskal Herriko gizartea eleaniztuna dela esan dezakegu; eta, hortaz, euskal eskolak izan behar duen helburuetako bat herritar eleaniztunak heztea da. Geroz eta elkarlotuago dagoen mundu batean bizi gara, non eremuko hizkuntza ofizialak jakiteaz gain, ezinbestean, hizkuntza global deituriko horietako bat gutxienez ere jakin behar dugun. Hizkuntzek, besteak beste, pertsonak elkar ezagutzeko, ideiak partekatzeko zein kulturak ulertzeko aukera ematen digute (Eusko Jaurlaritza, 2014).

Dakigunez, Euskal Autonomia Erkidegoak (EAE) bi hizkuntza-ofizial ditu, euskara eta gaztelania, eta haien presentzia oso desberdina da testuinguruaren arabera. Euskara EAEko hizkuntza minoritarioa da, populazioaren %30 inguruk ama-hizkuntzatzat duena. Aldiz, euskarak hizkuntza-sisteman duen presentzia ikaragarri hazi da azken 25 urteetan.

Euskal hezkuntza-sistemak **hiru hezkuntza-eredu** eskaintzen ditu, ereduek trataera linguistikoarekin erlazio zuzena dutenak. **B** ereduan euskara eta gaztelania erabiltzen dira heziketa emateko. **A** eta **D** ereduetan berriz, hizkuntza bat komunikazio-hizkuntza bezala erabiltzen da (A ereduan gaztelania eta D ereduan euskara), eta bestea eskola-curriculumeko irakasgai bat besterik ez da (3 ordu astean). Orokorrean, jaiotzetik euskaraz hitz egiten dutenek D eredua hautatzen dute; eta bestetik, ama-hizkuntza gaztelania dutenak hiru ereduetan egoten dira presente, baina azken aldian, D eredura jotzen ari dira nagusiki. Gainera, eskolaturik dauden ume guztiek atzerriko hizkuntzaren bat ikasten dute, %94ren kasuan hizkuntza hori ingelesa izaten da (Cenoz eta Valencia, 1995).

1989 eta 1990an Olaziregi eta Sierrak (in Cenoz eta Valencia, 1994, 1995) hainbat ikerketa egin zituzten hiru ereduetan lortutako gaitasun linguistikoa ikertzeko. Ikerketa horietan ikusi zen D ereduko ikasleek gaitasun maila altua lortzen zutela bai euskarari baita gaztelan ere. A eredukoek, aldiz, euskara maila oso baxua zutela ikusi zen, eta gaztelan D eta B ereduko antzekoa. Horrenbestez, emaitza horietatik ondoriozta daiteke euskaraz ikasteak ez duela gaztelaneko konpetentzian kalterik suposatzen, eta gainera, euskarari konpetentzia altua lortzen dela.

Baina ereduez gain, badira ere **hezuntza programa** ezberdinak gure gizarteko euskal eskoletan. Nahiz eta eredu berdinean ikasi, ikasgela bateko ikasleak hiru programa desberdinetan murgildurik egon daitezke, Bilbaoren (1997) arabera. Batetik, **azpiratze** programa dago. Bertan, haurrak bere hizkuntza eta kultura alboratu eta gehiengoarenagatik ordezkatzeko du, bere hizkuntza gutxietsia eta azpiratua geratuz. Hau da, eskolan ikasitako hizkuntzak etxekoa ordezkatzeko du. Gehienetan arrakasta gutxi izaten duen programa da. Honen adibide izango litzateke Somalialtik etorritako haur batek D ereduan ikasten duenean. Hizkuntza berria ez zaio irakasten bere ama-hizkuntzaren erreferentziarekin (normalean irakasleek ez dutelako ezagutzen ikasle hauen H1a), eta horrek kalteak ekar ditzake. Haien ama-hizkuntza ez da behar bezala lantzen, eta elebitasun kentzailea izan daiteke horren ondorio, hizkuntza batek besteari kentzen baitio lekua.

Bestetik, **murgiltze** programa dago. Programa honetan, ikaslearen etxeko hizkuntza balioetsi eta babestu egiten da; hau da, eskolako irakaskuntza-hizkuntza ikasteaz gain etxekoa ere ikasten da, ez baita bazterrean uzten. Irakasgai gehienak bigarren hizkuntzan (H2) ematen dira, hortaz, ikaslea H2 horretan guztiz barneratzen da. Baina H1rekiko begirunea dago, programaren helburua ez baita H1 hori alboratzea, baizik eta hizkuntza bietan alfabetatzea eta trebatzea; haurra elebidun orekatu bihurtzeko asmoz. Oro har, arrakasta handiko programak dira, bereziki oso aberasgarriak ama-hizkuntza sendoa duten haurrentzat. Gure eskoletan, adibidez, ama-hizkuntza (H1) gaztelania duten eta D ereduan euskaraz ikasten duten ikasleak dira murgiltze programan murgildurik daudenak. Bilbaok (1997) askotan nabarmentzen du haurrak eskolaren bidez elebidun bihurtzeko programarik onena murgiltze programa "elebakarrak" direla; hau da, ama-hizkuntza ez den beste hizkuntza batean irakaskuntza jasotzea.

Bilbaorekin (1997) bat eginez, testuinguru elebidunetan murgiltze programak proposenak eta eraginkorrenak direla diote Cenoz eta Valenciak (1994), eta dituzten abantailak erakusten dizkigute. Murgiltze programek lurraldeko hizkuntzaren ondarea

mantentzen eta sustatzen laguntzen dute. Izan ere, programa horietan hizkuntza minoritarioa izaten da komunikazio-hizkuntza. Gainera, euskara hizkuntza gutxitua eta minoritarioa den aldetik, programa mota horrek euskara indartu eta behar bezala irakasten dela bermatzen du. Azken finean, euskara egonkortu behar da euskal herritar eleanitzak lortu ahal izateko.

Hirugarrena eta azkena, **mantentze** programa da. Bertan dauden ikasleek euren ama-hizkuntza gutxituan burutzen dute irakaskuntza; adibidez, H1 euskara duen haur batek D ereduan ikasten duenean. Gizarteko beste hizkuntza ere ikasten du eskolan (H2: gaztelania), horrela, emaitza elebiduna lortuz. Emaitzen aldetik, murgiltzearen antzera, arrakasta handikoak izaten dira programa hauek.

Ikusitako hezkuntza eredu zein programez aparte, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) testuinguru linguistikoa nahiko konplexua dela esan daiteke (Rodríguez, 2016). Batetik, lurraldeko bi hizkuntza ofizialek (euskara eta gaztelania) sortzen duten elebitasunagatik; eta bestetik, hiru probintziek dituzten berezitasunengatik. Azken horri dagokionez, eremu batzuetan euskararen presentzia nagusiagoa da beste batzuetan baino; adibidez, Gipuzkoan Araba eta Bizkaian baino euskara gehiago hitz egiten da. Gainera, normalean hiri eta herrien artean aldeak ere badira, herrietan hirietan baino euskara gehiago erabili ohi delako. Horregatik, ezinbestekoa izango da eremu zein eskolako testuinguru soziolinguistikoa ezagutu eta zehaztea hizkuntza bat baino gehiagoko ikaste-irakaskuntza programak eta ereduak ezarri baino lehen.

Nahiz eta azken hamarkadetan euskararen presentzia hazi den, gaur egungo egoerak oraindik ere zailtasun eta erronka nabarmenak aurkezten dituela esan daiteke. Esaterako, zenbait eremutan euskaraz eskolatzeko arazoak eta ikasgeletatik kanpoko erabilera. Batetik, Nafarroako zenbait zonaldeetan euskaraz eskolatzeko arazo handiak daude oraindik, euskal hizkuntzaren presentzia oso txikia den eskualdeetan bereziki (Nafarroako hegoaldea). Bestetik, nahiz eta gaur egungo ume gehienek D ereduan ikasten duten, orokorrean gero gizartean gaztelaniak jarraitzen du bere nagusitasunarekin. Hortxe erronka handia dago: euskaraz ikastetik euskaraz bizitzera pasatzea.

4.4. ELEANIZTASUNA EGUNGO HEZKUNTZA LEGEDIAN

Gauzak horrela, esan dezakegu EAEn bertan gaztelania erabiltzera bultzatzen gaituen egoeran bizi garela. Erregio eta Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Kartak (1992) jasotzen duen ikuspuntua jarraituz, euskara izango da helburu dugun euskal

hezkuntza sistema eleaniztunaren ardatza. Batetik, euskal gizartean gaztelania euskara baino gehiago hitz egin eta entzuten denez, desoreka hori berdintzeko asmoarekin. Eta bestetik, hizkuntzen berdintasun soziala eta ikasleen aukera-berdintasuna sustatzeko. Honela, eskolako ekintzetan euskara ohituraz eta era normalizatuan erabiltzeko bermea eskaini nahi da (Eusko Jaurlaritza, 2014).

Heziberrik 2020 (Eusko Jaurlaritza, 2014) dionez, hezkuntza eleaniztun horrekin lortu nahi dena ikasleek euskaraz zein gaztelaniaz, ahoz nahiz idatziz, modu eraginkor eta egokian komunikatzea da; baita gutxienez atzerriko lehen hizkuntza batean egoki komunikatzea ere. Hori izango litzateke lortu nahi den ikasleen irteera-profila.

4.5. ELEANIZTASUNA IRAKASTEN

Cenoz eta Valenciak (1994, 1995) burututako bi ikerketatan argi geratzen da elebitasunak hirugarren hizkuntza (H3) bat ikasterako orduan duen eragina. Dena dela, H3 bat ikasten hasi aurretik hiztunak dakizkien hizkuntza kopurua ez da faktore bakarra H3ren ikaskuntza-prozesuan eragingo duena. Faktore kognitiboak, sozio-estrukturalak (adina, generoa, familiaren maila sozioekonomikoa, etab.), sozio-fisiologikoak (jarrera, motibazioa) eta hezkuntza (H3 ikasten eramandako urte eta orduak, ikas-metodoa) ere badirelako esanguratsuak, eta hortaz, derrigorrez kontutan hartzekoak.

Hezkuntzak, bereziki, zeresan handia dauka. Izan ere, eskolak asko laguntzen du umeen hizkuntza-gaitasuna garatzen. Bertan ikasleak esperientzia berriak ezagutuko ditu beste hiztunekin batera, eta bere hizketa etengabe hobetzeko esfortzua egingo du. Hizkuntzaren garapen hori eskola curriculumaren parte da. Curriculumak ikasleen komunikazio linguistikoa indartzea du helburu, ez soilik beste ikasleekin, baizik eta eskola-komunitatea osatzen duten kide guztiekin. Beraz, agerian geratzen da eskolak eta hezkuntza-sistemak hizkuntzen arloan duten esku-hartzea eta garrantzia (Bustos Caparrós, 2009).


Hizkuntza berriak bereganatzen laguntzen duten faktoreen artean hori ikasteko adina aipatzen du Cenozek (2008), eleaniztasun goiztiarra nabarmenduz. Goiz hasteak gaitasun komunikatiboaren alderdi ezberdinak garatzea ekartzen du eta baita hizkuntzen arteko harremanak ahalbidetzea ere. Horregatik da ezinbestekoa eskolako lehen mailetatik hizkuntzen tratamenduari eta hezkuntza eleanitzari behar bezalako garrantzia ematea.

Gutxiengoen hizkuntzak babesteko eta aintzat hartzeko ardurak bultzada izan dira hezkuntza eleaniztunarentzat (Fessi, 2015). Hirugarren hizkuntza ikasterakoan, ez

gaude soilik ama-hizkuntzaz baldintzaturik, baizik eta ikasitako beste hizkuntzek ere eragina dute, Cumminsek (1979) esandakoari jarraituz. Hizkuntza minoritario horiek ezagutu eta mintzatzeak, batetik, hizkuntza horien jarraitutasuna bermatzen laguntzen du, eta bestetik, bakoitzaren gaitasun linguistikoaren posibilitateak handiagotzen ditu ere. Beraz, euskara bezalako hizkuntza gutxituak asko babestu behar dira eleaniztasuna lortzeari begira.

Pertsona bat hizkuntzak ezagutzen doan heinean, bere komunikazio-gaitasuna osatzen duten hizkuntza-jakintzak eta esperientziak harremantzen joango da. Ikuspuntu horrek hizkuntza baten irakaskuntza nolakoa izan behar duen adierazten du nolabait, kontua ez delako hizkuntzak zein bere aldetik ikastea (Eusko Jaurlaritza, 2014). Horrela, lehen hizkuntza eskuratzeko garatutako estrategiak hurrengo hizkuntzak bereganatzeko oso baliagarriak dira; normalean ulermenean eta produkzioan erabilitako prozedurak berdinak baitira hizkuntza guztietan (Apraiz eta beste, 2012). Jarraian laburki azaldutako Cumminsen Elkarmenpeketasunaren Teoria argudio hori hobeto ulertzen lagunduko digu.

1979an Cumminsek **Elkarmenpeketasunaren Teoria** garatu zuen (in Cummins, 1983), non hizkuntzak azaleko eta sakoneko egituretan bereizi zituen, icebergen analogia erabiliz. Azaleko egitura ikusten dena litzateke (hitz egin eta entzuten duguna: jarriotasuna, hiztegia, ahoskera, etab.), eta sakoneko egitura ikusten ez dena (gaitasun komunikatiboa).



Irudia 1. Cumminsen iceberga (Bligh, 2014)

Bere teoria jarraituz, gure adimenean hizkuntzak ez daude banaturik, baizik eta elkarren mendekoak dira. Hizkuntza guztiek sakoneko gaitasun bera eta bakarra dute, eta gaitasun hori edozein hizkuntzatan behar bezala landuz, ikasten ditugun gainerako hizkuntza guztiak elikatuko dira bertatik. Adibidez, euskaraz idazteko zein irakurtzeko gaitasunak garatzerakoan, hauek ez dira bakarrik euskaraz aplikatuko; baizik eta,

bitartean, gaitasun linguistiko osoagoa garatuz doa, beste hizkuntza batzuetan komunikatzea erraztuko duena.

Aurretik esan bezala, EAEko bi hizkuntza ofizialek komunikabideetan duten presentzia eta erabilera soziala ez da orekatua izan ohi, horregatik eskolek hizkuntza gutxituarekiko jarrera baikorra erakutsi behar dute beti. Testuinguru eleaniztun honetan, hezkuntzak eta eskolek badute beren erantzukizuna: hiztunen garapen pertsonal eta soziala eskuratzeko beharrezkoak izango diren hizkuntzak menderatzen erraztea (Apraiz Jaio, Pérez Gómez eta Ruíz Pérez, 2012). Garapen pertsonal eta sozial horretarako, biztanleak bere tokiko hizkuntza ofizialak ezagutu behar ditu (gure kasuan: euskara eta gaztelania) besteekin elkarreraginean komunikatu ahal izateko zein lekuko kultura eta gizartearen parte izateko.

Eskolak hizkuntzen garapena bultzatzeko dituen tresna nagusien artean bada bat arreta berezia merezi duena: **Ikastetxeko Hizkuntza Proiektua**. Eskola zein ikastetxe bakoitzak berea garatu behar du, eta bertan hizkuntzen irakaskuntza eta erabilerarekin lotutako alderdi guztiak azaldu behar dira. Alderdi guzti horien artean garrantzitsuetariko bat izango da zehaztea Curriculum Proiektuan zer nolako trataera ematen zaien hizkuntzei (Eusko Jaurlaritz, 2014).

Berritzegune Nagusiari esker, jakin dezakegu gaur egungo hizkuntzei eman behar zaien trataera egokia bateratua eta integrala dela. Hizkuntzen Trataera Bateratuaz (HTB) hitz egiten dugunean, curriculumaren parte diren hizkuntza guztien programazio adostuari buruz ari gara. Horren inguruan gehiago sakonduko dugu hurrengo atalean.

4.6. EGUNGO ERRONKA: HIZKUNTZEN TRATAERA INTEGRATUA

Argi dago egungo gizartean nagusi den izaera eleanitz eta multikulturalari erantzuteko beharrezkoa dela eskoletan aldaketa metodologikoak zein antolaketazkoak aurrera eramatea. Bide batez, ikasle eleaniztunen behar komunikatiboei erantzutea ere da eskolaren erronka nagusietako bat. Apraiz eta bestek (2012) horretarako bi bide proposatzen dituzte: lehenengoa, hizkuntzen eta eduki curricularren irakaskuntza integratua (CLIL: *Content and Language Integrated Learning*); eta bigarrena, **Hizkuntzen Trataera Bateratua** (HTB edo TIL: *Tratamiento Integrado de Lenguas*).

Lehenengoaren kasuan (CLIL) atzerriko hizkuntza eta edukien irakaskuntza batera gertatzen den bitartean, bigarrenengan (HTB edo TIL) nahiz eta ikuspegi zein printzipio metodologiko berdina izan, edukien banaketa eta antolamendua izanen da.

Hau da, CLILEk atzerriko hizkuntza bakarrari egiten dio erreferentzia (adibidez, ingelesari), horren irakaskuntza edukiarekin batera era transbertsalean ikasiz; eta HTBk hizkuntza bat baino gehiago kontuan hartzen ditu (gure eskoletan: euskara, gaztelania eta atzerrikoa), landu beharreko edukiak programazio komun batean antolatuz.

Heziberrin 2020 (Eusko Jaurlaritza, 2014) aipatzen den eta euskal hezkuntzaren helburu den ikasleen irteera-profila lortzeko, hizkuntza-irakasleek hizkuntzak modu integratuan tratatu behar dituzte; eta horretarako, edukiak eta metodologia moldatu egin behar dira.

Hizkuntzen trataera bateratua proposamen metodologiko bat da. Proposamen hori jarraituz, curriculumaren parte diren hizkuntza guztiak antzeko metodologiarekin irakatsi behar dira. Horrela, hizkuntza batean ikasitakoa beste batera transferitzea errazagoa izango da (Ruiz, 2008). Beraz, HTBn, ikasketen transferentzia errazten duten printzipio metodologiko komunak aukeratu behar dira, eskolan ematen diren hizkuntza guztien programazio integratua lortzeko (Apraiz eta beste, 2012).

Hizkuntzak modu integratuan irakastea hainbat gauza nabarmenen emaitza da. Lehenengoa, ikasle elebidun edo eleaniztunak une oro eskura izango dituela dakizkien hizkuntzak eta horietan ikasitako guztia. Bigarrena, hizkuntza-ikasketak hizkuntza batetik bestera transferitzen direla gaitasun beraren parte direlako. Eta hirugarrena, eta azkena, testuinguru askotan (Euskal Herriko eskoletan, adibidez) ikasleak hizkuntza bat baino gehiago ikasten ari direnez aldi berean, hobe da horiek guztiak batera tratatzea eta irakaskuntza metodoan koordinazioa bilatzea.

Hiru baieztapen horien ildotik, metodologia martxan jartzeko, lehendabizi **Hizkuntzen Curriculum Integratua** egin behar dela proposatzen du Eusko Jaurlaritzak (2014). Horretarako, hizkuntza bakoitzarentzat egoera-familia esanguratsuak aukeratu behar dira, irteera-profilean zehazturik dagoen lorpen-maila eskura dezaten. Ikaslea gai izan behar da egoerak eskatzen duen hizkuntzan era egoki eta eraginkorrean erantzuten.

Gauzak horrela, hizkuntza-irakasleak ez dira pertsona eleaniztunak lortzeko helburuan inplikaturik dauden agente bakarrak; eskola osoak egon behar du konprometituta hizkuntzen trataera bateratuan. Beste irakasgaietako irakasleek ere hizkuntza-gaitasuna garatzen laguntzen dute, arlo bakoitzeko egoera espezifikoak ebatzi ahal izateko konpetentzia linguistikoa ezinbestekoa delako. Arloko oinarriko gaitasunak lortzeko, edukiarekin batera berezko hiztegia eta esamoldeak irakas ditzake irakasleak, hizkuntza eta arloko edukiak modu integratuan erabiliz problemak ebazteko.

“Edukia eta hizkuntza integratzeko planteamenduak hizkuntza-kompetentzia garatzea dakar” (Eusko Jaurlaritza, 2014: 2.or.).

Heziberrik 2020 dio Hizkuntzen Curriculum Integratuan printzipio batzuk onartu behar direla hiru hizkuntzetan (euskara, gaztelania eta atzerrikoa) gaitasuna lortu nahi baldin bada. Hurrengokoak dira hizkuntzen irakaskuntzan oinarrizkoak izan behar diren bost printzipioak:

- Inklusioa. Jatorrizko hizkuntza edozein delarik, ikasle guztiek dute kompetentzia eleaniztuna osoki garatzeko eskubidea.
- Erabilera. Hizkuntzak erabilera sozial eta akademikoan ikasten direla jakinda, komunikazioaren beharra ezinbestekoa da.
- Ikuspuntu komunikatiboa. Ikasgelak komunikazio-gune apartak bihurtu behar dira, ikasleek modu eraginkorrean parte har dezaten.
- Jarrera positiboak. Hizkuntzek harreman sozialetan eta bakoitzaren garapen emozionalean garrantzia handia dutela jakinda, ondo sustatu beharreko aspektua da.
- Hizkuntza eta edukia integratzea. Curriculum-arloak dira hizkuntzak erabiltzeko eremu eta egoerarik ohikoenak eta naturalenak.

Printzipio horiek erakusten digute komunikazio-proiektu esanguratsu baten beharra ezinbestekoa dela, non prozedurazko edukiak lehenetsi behar diren; alegia, egiten jakitea, eta ez adierazpenezko jakintza hutsa (Eusko Jaurlaritza, 2014: 3.or.).

Ruízek (2008) dioen bezala, hizkuntzen trataera bateratuaren plana diseinatzea ez da zeregin erraza. Esan dugun moduan, irakasle guztien koordinazioa ezinbestekoa izango da, eta ez soilik hizkuntza irakasgaiak ematen dituztenen artekoa. Curriculumeko beste irakasgaien irakasleek ere ezagutu eta babestu behar dute plana; guztien ardura baita hizkuntzen irakaskuntza, hizkuntzen bidez ikasten baitira curriculumaren eduki guztiak. Zehazki, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak (2009) argitaratutako curriculumean oinarrizko kompetentziak agertzen dira, hezkuntzaren helburu izan behar direnak; eta horien artean, komunikazio linguistikoaren kompetentzia ageri da.

Esan bezala, kompetentzia linguistiko horren garapena irakasle guztien ardura da, arlo linguistiko zein ez linguistikoko irakasleak bat etorri behar dira hainbat printzipio metodologikorekin, elkar koordinatuz. Hortaz, nahiz eta hizkuntzen trataera bateratuak batez ere hizkuntza irakasleei erreferentzia egin, ez dezagun ahaztu hizkuntzen irakaskuntza eskolako zein eskolaz kanpoko agente guztien ardura dela.

5. METODOA

Helburuetan (ikus 3. atala) aipatu dudan bezala, GrAL honen helburu nagusia da ama-hizkuntzaren eragina aztertzea hirugarren hizkuntza ikasterako orduan. Horretarako, ikasle batzuen gaztelania eta ingelesezko ahozko gaitasuna aztertuko da elkarrizketa baten bitartez.

5.1. JAKINAREN GAINKO BAIMENA

Tokieder Ikastolako Lehen Hezkuntzako 6.C ikasgelako ikasleei (nire *Practicum* //ko ikasgela, alegia) Jakinaren Gainko Baimena (ikus 10.1. ERANSKINA I) banatu zaie. Legearen aurrean, ezinbesteko betekizuna da familiek hori sinatzea ikasleek ikerketan parte hartu ahal izateko, beti ere datuen konfidentziasuna gordetzeko helburuz.

GrALeko tutoreak beste ikasturte batzuetarako lanetan erabilitako eredu batzuk erraztu, eta horietan oinarrituz osatu da Jakinaren Gainko Baimen hau. Honetan, laburbildurik agertzen dira ikerketaren nondik norakoak, baita ikertzailearen datuak ere (edozein zalantza izatekotan kontaktuan ipintzeko aukera izan dezaten). Batez ere, bertan ikerketaren helburu nagusiaz eta haien seme-alabak ikerketaren parte suertatuz gero, burutu beharreko jardueren berri ematen zaie. Familiek ez dute eragozpenik jarri eta ikasgela osatzen duten 24 ikasleek ekarri dute baimena sinaturik. Beraz, guztiek izan dute ikerketaren laginaren parte izateko aukera.

5.2. IKASLEAK

Baimena sinaturik ekarri duten ikasle horien artean, ausaz 8 ikasle hartu dira lagin moduan. Aukeraketa, esan bezala, guztiz ausazkoa izan da, lehendabizi H1 euskara dutenen artetik lau argazki atera eta gero, H1 gaztelania dutenetatik beste lau ateraz. Horrela, 8 ikasle horietatik lauk ama-hizkuntza euskara izango dute eta beste laurek gaztelania.

Ama-hizkuntzen (H1 euskara eta H1 gaztelania) bereizketa hori egitea erabaki da Cenoz eta Valenciak (1994, 1995) askotan errepikatzen dutelako elebidun izateak H3a eskuratzen asko laguntzen duela. Haien burututako ikerketa ezberdinetan H1 euskara dutenek atzerriko hizkuntzetan emaitza hobekak atera dituzte H1 gaztelania dutenekin alderatuz gero. Beraz, lan honetako hipotesi nagusia aztertzeko ere ezinbestekoa da H1 euskara eta H1 gaztelaniaren bereizketa hori egitea ikasleen artean.

Ateratako zortzi ikasleak Tokieder eskolako (D eredu) Lehen Hezkuntzako 6. mailakoak dira, klase berekoak eta 2007. urtean jaiotakoak (hau da, 11 urte dituzte). Haien artean lau neskak dira eta beste laurak mutilak, sexu bakoitzatik bik H1 euskara dutelarik eta beste biek H1 gaztelania.

5.3. GALDETEGIAK

5.3.1. IKASLEARENTZAKO GALDETEGIA

“Ikaslearentzako Galdetegia” (ikus 10.2. ERANSKINA II) euskarazko 30 galderaz osaturik dago eta guztiz anonimoa da. Galdetegia euskaraz egitea erabaki da horixe delako euren hezkuntza-hizkuntza. Galdetegi horren bitartez, ikasleek hizkuntzen inguruan dituzten jarrera eta motibazioak ezagutuko dira, baita egoera ezberdinetan zein hizkuntzatan hitz egiten duten ere, besteak beste.

5.3.2. GURASOENTZAKO GALDETEGIA

“Gurasoentzako Galdetegia” (ikus 10.3. ERANSKINA III) ikasleena baino laburragoa da, 14 galderez osaturik baitago. Hau ere guztiz anonimoa da. Galdetegi horren helburua da gurasoetariko baten hizkuntza-egoera ezagutzea, seme-alabekin zein hizkuntzatan hitz egiten duten eta hizkuntza ezberdinei ematen dieten garrantziaz galdetuz. Gurasoen egoera ezagutzea oso komenigarria da, azken finean, euren seme-alabengan eragin zuzena baitute. Kasu honetan, galdetegia euskaraz eta gaztelaniaz eman zaie, gurasoek galderak ulertzeko arazorik izan ez ditzaten, gurasoren batek euskaraz jakingo ez balu.

5.4. ARIKETA: ELKARRIZKETA GIDATUA

Ikerketaren ariketa nagusia laginaren parte diren zortzi ikasleetako bakoitzarekin elkarrizketa bat izatean datza. Elkarrizketaren helburu nagusia izango da partaide bakoitzaren ingelesezko zein gaztelaniazko ahozko gaitasunak neurtzea. Horretarako, berbaldiak grabatu dira, geroago xehetasunez aztertu ahal izateko.

Zortzi elkarrizketak 2018ko abenduaren 17ko goizean eraman dira aurrera. Elkarrizketatzailea eta elkarrizketatua bakarrik izan dira gela lasai batean, lehendabiziko orduan liburutegian (lehen bost elkarrizketak bertan) eta bigarren goan libre dagoen ikasgela arrunt batean (gainerako hiru elkarrizketak). Liburutegitik mugitu behar izan dira bigarren goan orduan klasea baitzegoen han.

Elkarrizketaren egoera lasaia eta nahiko lagunartekoa izan da; bata bestearen aurrean aulkietan eserita, mahai bat erdian dagoelarik. Horrela egitea erabaki da ikaslea erosoago eta tentsiorik gabe egoteko. Azken batean, haientzat egoera ezberdina denez, erosotasuna bilatu da horren aurrean ikasleek hobeto erantzungo dutelakoan.

Elkarrizketatzaileak mahai gainean telefono mugikorra eta elkarrizketa gidatzeko gidoia (ikus 10.4. ERANSKINA IV) baino ez ditu jarri. Mugikorra berbaldia grabatzeko tresna bezala erabili da; eta gidoia, aldiz, elkarrizketatzailearen euskarria izan da, galderak ondo eta ordenean formulatu ahal izateko.

Ikasleei egindako elkarrizketa gidatuaren gaia gabonak izan dira. Batetik, data gertutasunagatik; eta bestetik, gai nahiko espontaneoak delako. Gabonek aisialdia dakarte ikasleentzat, gogoz hartzen dituzten oporraldiak dira, beraz, hitz egiterako orduan gogoz hartzen duten eztabaida ere bada. Eta horrek asko lagunduko du elkarrizketa bideratzen. Izan ere, oso nabarmena da gai aproposaren aukeraketak duen garrantzia. Gainera, ingeleseko irakasleari esker jakin denez, bere klaseetan lantzen ari duten gaia ere badela; hortaz, hiztegi aldetik elkarrizketan aurkituko dituzten galderak ezagunak izango dira haientzat atzerriko hizkuntzan.

Baina gabonak ez dira izango elkarrizketaren gai bakarra. Amaitzeko, pare bat galdera ezberdin egingo zaizkie, bizitzako gai oso arruntei buruz: kirolak eta ogibideak. Bi gai horiek proposatu baino lehen ingeleseko irakaslearekin hitz egin da ikasturtean zehar ikusi dituzten gaiak eta hiztegia ezagutzeko. Irakasleak behin erantzunda, bi gai horiek aukeratu dira, ziurtatzen dutelako horien inguruan atzerriko hizkuntzan nolabaiteko ezagutzak dituztela. Horrela, ikus daiteke gai bat baino gehiagotan nola moldatzen diren ikasleak.

Ikasleak lehenbizi ingelesez elkarrizketatu dira eta ondoren, gaztelaniaz. Horrek pisuzko arrazoia dauka. Ordena horretan egiteak ziurtatzen digu gaztelania ez duela eraginik ingelesezko erantzunetan. Bestela, alderantziz eginda, gaztelaniazko erantzunak ingelesera itzultzen saia litezke ikasleak, edota nahiz eta ingelesez entzundakoa ez ulertu, aurretik gaztelaniaz ulertutakoarekin elkarlotzen ahalegindu. Laburbilduz, gaztelaniaz ingelesean izan dezakeen eragina ekiditu nahi izan da.

6. EMAITZAK


Jarraian, ikerketa lan honetan jasotako datuak ekarriko ditut, hiru atal nagusitan banatzen direnak: batetik, ikaslearentzako galdegitik ateratakoak; bestetik, gurasoentzako galdegitik ateratakoak; eta hirugarrenik eta azkenik, haiekin izandako elkarrizketatik lortutako ahozko gaitasunaren analisia.

6.1. GALDETEGIAK


6.1.1. IKASLEARENTZAKO GALDETEGIA

Hasteko, ikasleen artean existitzen diren hizkuntza ezberdintasunak identifikatzen saiatuko naiz; hau da, zein den haien ama-hizkuntza, euren hizkuntza-ohiturak, ingelesean duten ibilbidea eta hizkuntzekiko dituzten motibazio eta jarrerak, besteak beste. Informazio eta datu guzti horiek hurrengoko grafiko eta tauletan ezagutuko ditugu, ikasleek galdetegian erantzundakoa modu bisual eta erakargarriago batera igaroz. Grafiko bakoitzaren azpian analisi idatzia agertuko da, datuek islatzen dutena aipatuz.

- **Oinarrizko informazioa eta hizkuntza-ohiturak:** (1-9 galderak)



H1 mistoa duen hori H1 euskara dutenen multzoan sartu da, horrela lau eta lau ikasle geratuz talde bakoitzean. Hori kontuan izanda, hemendik aurrera ikerketaren parte den ikasle bakoitzak kode bat hartuko du bereizgarri gisa, betiere bere anonimatoa mantenduz: EUSK1, EUSK2, EUSK3, EUSK4, GAZT1, GAZT2, GAZT3 eta GAZT4.



Batetik, H1 euskara dutenen artean euskara, gaztelania eta euskararen erabilera nahiko paretsua da, non amarekin, aitarekin, anai-arrebekin eta familiaratean euskara presente dagoen. Baina, gero, aisialdian lautik hiruk gaztelaniaz hitz egiten dutela diote.

Bestetik, H1 gaztelania dutenen artean gaztelania oso nagusi da. Ikasle horiek gurasoekin gaztelaniaz egiten dute, eta euskara aisialdian edota lagunekin erabiltzen dute, ikastolatik kanpo eta noizbehinka. Aipagarria da ere, GAZT2k anai-arrebekin euskaraz eta gaztelaniaz egiten duela adierazi izana.


Azkenik, eskolako lagunekin zein hizkuntzatan komunikatzen diren galdetzerakoan, zortzi ikasleek berdin erantzun dute: euskara eta gaztelaniaz. Nahiz eta eskola barruan D ereduan ikasi (hau da, euskaraz), gaztelania ere erabiltzen dute haien artean.

- **Ingelesa eta autoebaluazioa: (10-18 galderak)**

Batetik, **ingelesari** dagokionez, ez dute oso argi zein adinekin hasi ziren ikasten. Batzuek eskolan hasi zutela esan, baina adin ezberdina adierazi baitute; eta eskola berdinean betidanik ikasi dutela jakinda, pentsatzekoa da adin berean hasiko zirela denak.


Hiruk eskolan bere ingelesezko lehen urratsak eman zituztela dioten bitartean, beste hiruk, aldiz, akademian (*People* eta *Kinselan* akademietan, alegia). Batek ez dio horri erantzun, eta azkenekoak eskolan eta akademian batera hasi zela adierazten du.

Escolan 3 ordu ingeles dituzte astero (nahiz eta batek 2 ordu dituela adierazi); guztiak berdin ikasgela berekoak baitira.





Goiko eskuineko grafikoa ikus daitezkeenez, orokorrean, astero ingeles ordu gutxiago sartzen dituzte eskolatik kanpo H1 euskara dutenak (4 ordu guztira) H1 gaztelania dutenak baino (8 ordu guztira); erdia, hain zuzen ere

Eskolatik kanpo ingelesa zertan erabiltzen duten galdetzerako orduan, hurrengo grafikoko erantzunak jaso dira. "Musika entzun eta abesteko" aukera izan da hautatuena (%75); gero "Atzerrira oporretara joatean", "Serieak/pelikulak ikusteko", "Atzerriko lagunekin" eta "Liburuak irakurtzeko", hurrenez hurren.



Bestetik, hiru hizkuntzetan duten ahozko gaitasuna **autoebaluatzean**, ama-hizkuntzaren eragina agertu da berriro ere. Bi ikaslek, H1 euskara duten bi neskek alegia, euskaraz gaztelaniaz baino hobeto moldatzen direla uste dute. H1 euskara duen mutil batek nota berdina ipini dio bere euskarazko zein gaztelaniazko ahozko gaitasunari. Beste bost ikasleek, aldiz, nota altuagoa ipini diote haien ahozko gaztelaniazko gaitasunari.




- **Hizkuntzekiko motibazioa eta jarrera: (19-30 galderak)**


	EUSK1	EUSK2	EUSK3	EUSK4	GAZT1	GAZT2	GAZT3	GAZT4
Hizkuntzei emandako garrantzia-maila	1.EUSK 2.GAZT 3.ING	1.EUSK 2.GAZT 3.ING	1.EUSK 2.GAZT 3.ING	1.ING 2.GAZT 3.EUSK	1.ING 2.GAZT 3.EUSK	1.EUSK 2.GAZT 3.ING	1.GAZT 2.ING 3.EUSK	1.GAZT 2.EUSK 3.ING


Hizkuntzei emandako **garrantziari** begiratu, non ezagutzen dituzten hiru hizkuntzak haiek emandako garrantzia mailaren arabera ordenatu behar zituzten, lauk lehen postua euskarari eman diote (horietako hiruk H1 euskara dute), bik ingelesari eta azken biak gaztelaniari (biak H1 gaztelania dutenak). Bigarren postuan gaztelania da nagusi, bai euskara lehen postuan ipini duten laurak zein ingelesa ipini duten biak eman diote gaztelaniari zilarrezko postu hori. Eta azken postuan, garrantzia gutxien ematen diotenari, euskara eta ingelesa berdindurik ageri dira (lau eta lau). Oso adierazgarria da H1 euskara duten batek euskara azken postu

horretan kokatu izana. Bestela, orokorrean, H1 euskara dutenek ingelesari ematen diote garrantzia gutxien; eta H1 gaztelania dutenek, berriz, euskara edo ingelesari.



la denek garrantzia handia ematen diote **ingelesa** ikasteari, guztiek (%100) etorkizunerako beharrezkoa ikusten dutela adieraziz. Bestetik, euskaraz ikastearen inguruan duten iritziari dagokionez, seik “*Gustura eta eroso sentitzen naiz euskaraz ikasten*” (%75) adierazi dute, baina H1 euskara dutenen artean, “*Nire hizkuntza eta kultura delako beharrezkoa ikusten dut*” ere izan da nagusi %75arekin.






Azkenik, goiko bi grafikoetan ikus daitekeen bezala, desberdintasun handiak ageri dira egoera ezberdinen aurrean zein **hizkuntza motibazio** dituztenen aspektuan. H1 euskara dutenek euskararekiko motibazio handiagoa dute, bizitzako esparru ezberdinetan erabiltzea gustatuko litzaieke. Horren adierazle, munduan hizkuntza bakarria izatekotan, hizkuntza hori euskara izatea gustatuko litzaiekeela diote. Aldiz, H1 gaztelania duten lauren erantzun oso desberdinak eman dituzte. Ez dirudi erantzunak hain argi dituztenik, eta aukera gehienetan hizkuntza bat baino gehiago hautatu dute (euskararen presentzia gutxiagotuz).

6.1.2. GURASOENTZAKO GALDETEGIA

Gurasoen galdetegiaren kasuan, prozesu bera erabiliko da: lehenengo taula-grafikoak datuak bilduz eta horiei egokitzen zaien analisi idatzia gero. Galdetegia 10.3. ERANSKINA III atalean aurki daiteke.

- **Galdera orokorrak:** (1-7 galderak)

Gutziz ausazkoa eta kasualitatea izan bada ere, H1 euskara duten lauren kasuan aitak bete izan du galdetegia, eta H1 gaztelania dutenena amak. Emaitzak aztertuz, honakoak aurkitu ditugu:




Seme-alaben ama-hizkuntzagatik galdetzerakoan, aurretik ikasleengandik ezagutzen genituen datuak atera dira baten kasuan ezik. EUSK2 ikasleak bere H1 euskara dela dio, eta bere aitak, aldiz, euskara eta gaztelania biak direla adierazten du. Gero, haien ama-hizkuntzagatik galdetzerakoan, zortzi gurasoen **ama-hizkuntza** gaztelania da, batek bakarrik (EUSK2ren aitak) mistoa duela: H1 euskara eta gaztelania.

Gurasoen artean bi soilik egon dira atzerrian ikasten edota lanean bizitzen, biak ala biak ingelesez, eta bi horiek H1 euskara duten bi ikasleen aitak izan dira (EUSK2 eta EUSK4ren aitak, alegia).

Hitz egiten dituzten hizkuntzei erreparaturaz, guztiak dira gutxienez elebidunak (gaztelania eta beste hizkuntzaren bat) eta badira bi eleanitzak direnak ere (euskara, gaztelania eta ingelesa). Azken bi horiek H1 euskara duten ikasleen gurasoak dira biak. H1 gaztelania duten ikasleen amek gaztelania eta beste hizkuntza bat dakite, baina batek bakarrik daki euskaraz. Aldiz, H1 euskara duten ikasleen lau aitek euskaraz eta gaztelaniaz badakite, eta atzerrian izandako biek ingelesa ere dakitenez eleanitzak dira.

Ikasketa-mailari
dagokionez, ez da ageri





emaitza oso adierazgarririk; baina esan daiteke aitek amek baino ikasketa-maila altuagoa dutela; hau da, H1 euskara duten ikasleen aitek H1 gaztelania duten ikasleen amenak baino ikasketa-maila altuagoa. Goi-mailako ikasketak burutzeraz iritsi diren hiru gurasoak H1 euskara duten ikasleenak dira (EUSK1, EUSK2 eta EUSK4).

- **Hizkuntzekiko jarrera eta motibazioa: (8-14 galderak)**

	EUSK1	EUSK2	EUSK3	EUSK4	GAZT1	GAZT2	GAZT3	GAZT4
Hizkuntzei emandako garrantzia maila	1.EUSK 2.GAZT 3.ING	1.EUSK 2.GAZT 3.ING	1.EUSK 2.GAZT 3.ING	1.GAZT 2.EUSK 3.ING	1.ING 2.EUSK 3.GAZT	1.GAZT 2.EUSK 3.ING	1.GAZT 2.ING 3.EUSK	1.EUSK 2.GAZT 3.ING

Hizkuntzei ematen dioten **garrantziari** begira, lauk euskara ipintzen dute lehen postuan, hiruk gaztelania eta batek ingelesa. Bigarren postuan gaztelania da nagusi -4 aldiz-, euskara hirutan ageri da eta ingelesa bakarrean. Eta azken postuari dagokionez, seik ingelesa kokatu dute bertan, batek gaztelania eta besteak euskara. H1 euskara duten gurasoek euskarari garrantzia handiagoa ematen diote orokorrean, eta aldiz, H1 gaztelania duten gurasoen artean iritzi oso ezberdinak daude.


Galdera berdinean haien seme-alabek erantzundakoarekin konparatuz, lau familiek berdinean erantzun dute (EUSK1, EUSK2, EUSK 3 eta GAZT3). Beste lauren kasuan, guraso zein seme-alabak garrantzia ordena ezberdinean kokatu dituzte hiru hizkuntzak.



Orokorrean, euren seme-alabek euskaraz ikasteari eta ingelesa ikasteari ematen dioten garrantzia oso handia da (batek -EUSK1- alabak ingelesa ikasteari garrantzia ertaina ematen dio, adierazgarria).

D eredua hautatzearen arrazoi nagusiaren artean, H1 euskara duten gurasoek euskararen balioa eta haien seme-alaben hizkuntza izatearen nahia nabarmentzen dute. H1 gaztelania duten gurasoen artean, berriz, euskarak Euskal Autonomia Erkidegoan duen garrantzia eta hizkuntza txikitatik ondo ikasteko aukera dela azpimarratzen dute, gero nagusitzean zailagoa izaten delako.

Bestetik, aldameneko grafikoan ikus daitekeenez, seme-alaba hizkuntza bakarrarekin geratu beharko balitz, gehienek gaztelania hautatu dute, soilik bi (H1 euskara duten bi nesken aitak: EUSK1 eta EUSK3) euskarekin geratuz. Gainera, etxeko telebista gaztelaniaz ikusten da familia guztietan, non bitan ere (H1 euskara duten bi ikasleen etxeetan) euskaraz ikusten den.



Azkenik, batek izan ezik (EUSK1), guztiek zerbait egiten dute eskolatik kanpo haien seme-alaben ingeles-maila hobetzeko asmoz: seme-alabaren izena **akademia** batean eman eta klaseak ordaintzea.

6.2. ARIKETA

Lehenik eta behin, garrantzitsua da gogoratzea nolakoa den ikasleek burutu duten ariketa. Elkarrizketa gidatua izan da elkarrizketagile (lan honen egilea) eta elkarrizketatuaren (ikaslea) artean, non gai ezberdinak jorratzen diren, baina bereziki gabonen inguruan hitz egiten den. Zehaztasun gehiagorako, ikus elkarrizketaren gidodia [10.4. ERANSKINA IV](#) atalean. Gainera, 8 ikasleen elkarrizketen transkripzioak ere eskura daude lan honen azken orrialdetan ([10.5. ERANSKINA V](#)).

Elkarrizketekin lortutako ahozko gaitasunaren azterketa linguistikoa egiteko, Larringanek (1992; in Diaz de Gereñu, 2005) eta Manterolak (2010) bere tesian proposatzen dituzten hainbat irizpidetan oinarritu naiz.

6.2.1. ELKARRIZKETAREN LUZERA

	EUSK1	EUSK2	EUSK3	EUSK4	GAZT1	GAZT2	GAZT3	GAZT4
Hitz-kopurua ING	101	172	157	96	125	74	87	149
Hitz-kopurua GAZ	115	114	139	94	155	101	109	199
Hitz-kopurua GUZTIRA	216	286	296	190	280	175	196	348
Elkarrizketaren IRAUPENA	10'01"	9'30"	7'46"	6'31"	7'15"	9'35"	7'06"	8'31"

Alde handia dago elkarrizketa osoan zehar hitz gehien erabili dituen ikaslearen eta gutxien erabili dituen ikaslearen artean (348 eta 175, alegia). Hizkuntza bakoitzari dagokionez, ingelesez 172 hitz maximoa eta 74 hitz minimoa direnen aldetik; gaztelaniaz 199 hitz dira maximoa eta 94 minimoa.

H1 euskara eta H1 gaztelaniaren arteko bereizketa kontuan izanda, hauek dira lortutako batezbestekoak:

- **H1_EUS:** 131'5 hitz ingelesez, 115'5 hitz gaztelaniaz; guztira 247 hitz bakoitzak.
- **H1_GAZ:** 108'8 hitz ingelesez, 141 hitz gaztelaniaz; guztira 249'8 hitz bakoitzak.

Datu horiekin ikus daiteke nola H1 euskara dutenek ingelesezko elkarrizketan hitz gehiago erabili dituzten H1 gaztelania duten ikasleekin alderatuta. H1 gaztelania dutenek, aldiz, gaztelaniazko elkarrizketan hitz-kopuru handiagoa izan dute.

6.2.2. ERABILITAKO MAKULUAK

Beheko taula aztertuz, ikus daiteke nola H1 gaztelania dutenek **makulu** gehiago erabili dituzten H1 euskara dutenek baino (88 vs 61). "E:" da gehien erabili duten makulua, EUSK3ren kasuan izan ezik. H1 euskara dutenen artean, 61 makulu horietatik 39 ingelesezko elkarrizketan agertu dira eta gainerako 22ak gaztelaniazkoan. H1 gaztelania dutenen kasuan, aldiz, 88 makuluetatik 53 ingelesezkoan eta beste 35ak gaztelaniazkoan izan dira. Hau da, makuluen %60 baino gehiago (149tik 92) ingelesezko elkarrizketan agertu dira.

		MAKULUAK							
		e:	osea	ay	pues	a:	m:	ba	GUZTIRA
EUSK1	ING	17	3	5					25
	GAZ	6			2				8
	GUZTIRA	23	3	5	2				33
EUSK2	ING	10							10
	GAZ	1			5				6
	GUZTIRA	11			5				16
EUSK3	ING				1				1
	GAZ	1			2				3
	GUZTIRA	1			3				4
EUSK4	ING	3							3
	GAZ	2			3				5
	GUZTIRA	5			3				8
EUSK	GUZTIRA	40	3	5	13				61
GAZT1	ING	8				1			9
	GAZ	7			5				12
	GUZTIRA	15			5	1			21
GAZT2	ING	17		2			3		22
	GAZ	8			2				10
	GUZTIRA	25		2	2		3		32
GAZT3	ING	7							7
	GAZ	3							3
	GUZTIRA	10							10
GAZT4	ING	10	2					3	15
	GAZ	3	1		6				10
	GUZTIRA	13	3		6			3	25
GAZT	GUZTIRA	63	3	2	13	1	3	3	88
TOTALEAN		103	6	7	26	1	3	3	149

Ikasleen artean ere diferentzia handiak izan dira, 33 (EUSK1) eta 4 (EUSK3) makulu bitarte agertu baitira bi hizkuntzetakoak kontuan izanda, ingelesean tarte hori 25 (EUSK1) eta 1 (EUSK3) bitartean izan delarik; eta gaztelaniazkoan 12 (GAZT1) eta 3 (EUSK3 eta GAZT3) bitartekoa izan da.

6.2.3. ELKARRIZKETARAKO AUTONOMIA-MAILA

Guztiek **autonomia-maila** txikiagoa erakusten dute ingelesez galderei erantzuten. Horren erakusle dira, besteak beste, hizkuntza horretan makulu gehiago erabiltzea, edota askotan “*eske ez dakit nola esaten den*” (EUSK1 eta GAZT3), “*I don’t know*” (EUSK3 eta GAZT1) “*nola esaten da?*” (GAZT3 eta GAZT4) eta horrelakoak erabili izan dituztela. Horrek, nolabait, jariotasun eta kalitateari eragiteaz eta ulermena oztopatzeaz gain, ingelesez eroso sentitzen ez direla adieraz dezake, lexiko faltagatik zein dena delakoagatik.

Gaztelaniaz, berriz, guztiek eroso eta autonomia-maila altuarekin erantzun dutela esan daiteke, beti ere 11 urteko neska-mutilak direla kontuan izanda. Erantzun osoagoak eman eta hitz-makulu gutxiago eta testu-antolatzaile gehiago erabili dituzte, galderei erantzuteko erraztasun eta segurtasun handiagoa izan duten seinale; erantzun dutena erantzun nahi zuten horren antza izan duelaren seinale.

Ingelesez, gabonen inguruko galderei erantzutea asko kostatu zaie, eta modu nahiko monosilabikoan (“Yes” eta “No”) erantzun diote, EUSK4 eta GAZT1 ikasleek bereziki. Kirol eta lanbideen inguruzko galderei, aldiz, nahiko erraz eta jarioz erantzun diete.

Ingeles eta gaztelaniazko erantzunak eduki aldetik alderatzean, gehienek bigarren goan informazio gehiago erantzen diote (EUSK2 eta EUSK3 ikasleak izan ezik). Garrantzitsua da gogoratzea lehendabizi ingelesez egin zaiela elkarrizketa, eta gero, gaztelaniaz. Horrela, gaztelaniaren eragina ekidin eta bere transferentzia ingelesera sahiesteko asmoz. Gehienetan, ingelesez erantzundakoa gaztelaniaz osatzen dute gero, informazio gehigarria erantsiz. Eta, gainera, askotan, gaztelaniazko erantzunak aurretik ingelesez erantzundakoa hobeto ulertzen lagundu izan digu.

6.2.4. TESTURATZE-MEKANISMOAK (KOHESIOA)

Nahiz eta bi hizkuntzen elkarrizketak aztertuko ditudan, arreta berezia eskainiko diot ingelesezkoari, ingelesa baita benetan aztertu nahi dugun hizkuntza, ama-hizkuntzak horretan duen eragina neurtuz.

6.2.4.1. Testu-antolatzaileak

	EUSK1	EUSK2	EUSK3	EUSK4	GAZT1	GAZT2	GAZT3	GAZT4
Ingelesez	2	6	0	1	1	2	1	3
Gaztelaniaz	1	5	5	1	4	2	2	5
Guztira	3	11	5	2	5	4	3	8
Ingelesez	9				7			
Gaztelaniaz	12				13			
Guztira	21				20			

(“PUES” guztiak makulutzat hartu ditudanez ez ditut antolatzaile modura aintzat hartu)

Batetik, orokorrean ez dute **testu-antolatzaile** askorik erabili; gehienbat erantzun motzak eta laburrak eman dituztelako, kostatu egin zaie diskurtsoa garatzea eta luzatzea.

Bestetik, bi ikasle taldeen artean ez da ezberdintasun adierazgarririk antzematen. Dena dela, nahiz eta zenbaki oso txikiaz ari garen, gaztelaniaz ingelesez baino antolatzaile gehiago erabili izan dituzte; gaztelania hobeto menderatzen duten erakusle.

Testu-antolatzaileen artean *“because”* (12 aldiz) eta *“porque”* (10 aldiz) izan dira erabilienak, kirolen atalean zergatia galdetzerakoan erabili izan baitituzte gehienek antolatzaile horiek bi hizkuntzetan. Beraz, *zergatik?* galderaren ondorio zuzena dira hitz horiek, eta ez eurek libreki diskurtsora ekarritakoak. Bigarren erabilienak, *“and then”* (2 aldiz) eta *“y (pues) luego”* (6 aldiz) antolatzaileak izan dira. *“Usually”* (EUSK2 eta EUSK3), *“sometimes”* (GAZT2) eta *“when we finish”* (GAZT4) aditzondoak ere antolatzaile funtzioan agertzen direla nabarmendu daiteke.

6.2.4.2. Lexikoa

Zortzi ikasleek erabilitako **hiztegia** (bereziki ingeleseko atalean) nahiko sinplea izan da, haien adina kontuan izanda normala dena. Batetik, maiztasun handiko izen eta aditzak izan dira erabilienak (*house, family, friends, eat, go, play*) eta askotan behin baino gehiagotan esaldi berean errepikatuak. *“Yes”* eta *“No”* hitzak ere maiz agertu dira.

Bestetik, maiztasun txikiagoan, arreta deitu nauten beste zenbait hitz ere agertu dira: *“presents”* (EUSK2), *“several discapacities”* (GAZT1) eta *“grapes”* (GAZT2) ingelesean eta *“parientes”* (EUSK4) hitzaren kasua gaztelaniaz.

6.2.5. ALDERDI GRAMATIKALA

Normala denez, ikasle guztiek akats gramatikal gehiago izan dituzte ingelesean gaztelaniaz baino, denbora gutxiago daramatelako hizkuntza hori ikasten, besteak beste. Ingelesean fokalizatuz, gehienek arazoak dituzte aditzak erabiltzerako orduan. Orainaldia erabiltzen dute beti (*present simple*), aditz denbora aldatu gabe. Errepikapenak dira nagusi (*“and I go to... and I go to...”*), eta 1.pertsona singularra erabiltzen dute ia beti. Gainera, 3.pertsona denean, aditzari *“-S”* marka

morfologikoa eranstea ahazten zaie (EUSK3 da hori ongi egin duen bakarra: “*My father works in...*”).

Hauek dira aurkitu ditudan akats gramatikal nabarmenatarikoak:

NORK	Ikasleek esandakoa	Nola beharko lukeen
H1_EUS_1	I have happy	I am happy
H1_EUS_2	...they are presents...	... there are presents...
H1_EUS_3	...we shop some pastels...	...we buy some pastels...
H1_GAZ_1	She help a person...	She helps a person...
H1_GAZ_3	...in Mondays...	... on Mondays...
H1_GAZ_4	I have two grandad an two grandmother	I have two grandads an two grandmothers

6.2.6. ALDERDI FONETIKOA

Ahoskera aldetik, ez dut inolako arazorik izan ikasleak ulertzeko. Bidea badute oraindik hobetzeko, normala denez, baina esango nuke ingelesa modu onargarrian ahoskatu dutela, hanka-sartze larririk egin gabe. Agian, adierazgarriena GAZT1 ikaslearen kasua izan da. “*Eat*” behin baino gehiagotan txarto esan du, berak /eat/ esaten baitu, /it/ esan beharrean.

7. ONDORIOAK

Atal honetan, nire ikerketan parte hartu duten 8 ikasleen datuetatik zenbait ondorio orokor ateratzen saiatuko naiz. Horretarako, bi galdetegietako emaitzak kontuan hartuko dira ahozko elkarrizketaren emaitzekin konparatzeko, horrela ondorio batzuetara iristeko asmoz.

Lana honen helburu nagusia berrartuta, *“ama-hizkuntza euskara duten ikasleek emaitza hobekak eskuratzen dituzte ingelesa bezalako hirugarren hizkuntza batean ama-hizkuntza gaztelania dutenekin alderatuz gero”* hipotesia frogatzea zen asmoa, 3. atalean aurkeztu moduan. Lagin txikia edukitzeak ezartzen dituen mugez gain, aurrera eramandako elkarrizketak ez dit aukera handirik eman ikasleen arteko ezberdintasun oso adierazgarriak hautemateko.

Dena dela, badira bi ikasle besteak baino hobeto moldatu direnak (EUSK2 eta EUSK3, alegia), eta bi horiek gauza bat dute amankomunean: H1 euskara dutela. Soilik bi pertsonen ari garenez, ez dakigu noraino aldagai horrek (ama-hizkuntza) eragina izan dezakeen, baina adierazgarria izan daiteke planteaturiko hipotesi hori baieztatzeko bidean.

Oro har, ikasleek zailtasun handiak izan dituzte ingelesez erantzun luzeak osatzeko. Esaldiak luzatzen diren heinean, makulu zein akats gramatikalen presentzia ere handituz doa. Gainera, oraindik testu-antolatzaileak erabiltzea asko kostatzen zaie (baita gaztelaniaz ere), eta horregatik, *“and”* eta *“y”* juntagailuen erabilera masiboa izan da.

Gaztelaniazko erantzunak garbiagoak eta etenaldi zein makulu gutxiagoak direla esan daiteke. Hemen, espero bezala, ez da ama-hizkuntzaren eragina nabaritu; hau da, ama-hizkuntza euskara duen ikasle batek ama-hizkuntza gaztelania duen beste batek bezala egin du, inolako ezberdintasunik aurkitu gabe. Horrek erakusten digu marko teorikoan agertutako beste hipotesi bat: ama-hizkuntza euskara dutenak gaztelaniaz arazorik gabe moldatzen direla, H1 gaztelania dutenekin alderatuz, emaitza aldetik ez dela diferentziarik nabaritzen.

Bestetik, ama-hizkuntzaren eragina albo batera utzita, eskolaz kanpo gehienek (batek izan ezik) ingelesa akademiaren batean ikasten dutela jakin dugu galdetegi esker. Faktore horrek eragin handia izan dezake ere. Azken finean, eskolako asteko 3 orduz gain, kanpoan ingelesean prestatzen jarraitzen dutelako (batzuk beste batzuk baino gehiago). EUSK1 izan daiteke ingelesez erantzuteko traba gehien izan dituenak, berak hasi aurretik aitortu du *“eske naiz super txarra ingelesean, ya te lo digo e?”*; eta

ikasle hori da bakarra Tokieder eskolatik kanpo ez duena ingelesa ikasten. Akademian 3 ordu/astean sartzen dituen batek EUSK1k baino ingeles bikoitza ikasten du astean zehar, orduan, normala da eragin handia izatea horrek. Beraz, ama-hizkuntzaren eragina baino, eskolaz kanpoko ingelesaren ikaskuntzak funtzio esanguratsua duela esan dezakegu.

Laburbilduz, esan daiteke Euskal Herria bezalako lurralde elebidun batean ama-hizkuntzak eragina izan dezakeela hirugarren hizkuntza ikasterako orduan; baina, jakina, inoiz ez da izango faktore bakarra. Lan honetan erakutsi dugun moduan, hiztunaren motibazioa atzerriko hizkuntzarekiko zein H3n sartzen dituen ordu kopurua ere faktore erabakigarriak izango dira H3 horren ezagutza eta kompetentzia-mailan.

8. HOBETZEKO PROPOSAMENAK

Gradu Amaierako Lana honetan, atzerriko hizkuntza ikasterako orduan Euskadi bezalako eremu elebidun batean ama-hizkuntzak duen eragina aztertzen saiatu naiz.

Ikerketa egiten joan naizela, zenbait arazo antzeman ditut, etorkizunean horrelako beste lan bat egiterako orduan kontuan hartzekoak. Batetik, lagin handiagoa erabiltzea oso komenigarria litzateke, ama-hizkuntza bakoitzeko 10 bat ikasle lortzera iritsiz. Bestela, lagin txikietatik lortutako emaitzak eta ateratako ondorioak orokortzea nahiko zaila izan daiteke.

Bestetik, interesgarria litzateke ere etorkizunerako sexuen arteko bereizketa egitea. Horrela, emakumezkoen eta gizonezkoen artean ezberdintasunak diren konproba daitezke, eta ikerketa lerro berri bat irekitzeko aukera ematen digu aldagai horrek. Ez dut uste faktore erabakigarri bakarra izango zenik, aipatutako beste hainbat ere badirelako, baina lagin zabaletan aldeak egon daitezke sexuen artean. Emakumeek hizkuntzekiko motibazio handiagoa izan ohi dute, baita arduratsuagoak izan ohi dira, eta horrek, horrelako ikerketa batean eragina izan dezake.

Hirugarrenik, eta azkenik, hizkuntzen ahozko gaitasuna gehiago landu behar dela baieztatzen dut. Ez bakarrik elkarrizketetan ikusitakoagatik, baita Praktikak egiteko izan ditudan hiru aukeretan ikusi dudanagatik ere. Egia da lan honetan egindako elkarrizketa kasu berezia zela (elkarrizketa bat gela huts batean, atal oso bat soilik ingelesez...). Horraino ulertu daiteke, baina gaztelaniazko atalean ere gabezia handiak antzeman dira. Urduritasuna, lotsa, makuluak eta horrelakoak esperientziarekin lantzen dira, publiko aurrean hitz egitearekin (kasu honetan klaseaurrean); eta nire praktikaldietan ikusi ahal izan dudanez, gehiegi lantzen ez den aspektua da. Horregatik, uste dut ahozko gaitasuna gehiago landuko balitz, ikerketaren emaitzak garbiagoak eta zehatzagoak izango liratekeela.

9. BIBLIOGRAFIA

- Apraiz Jaio, M. V., Pérez Gómez, M. eta Ruiz Pérez, T. (2012). La enseñanza integrada de las lenguas en la escuela plurilingüe. *Revista Iberoamericana de Educación*, 59, 119-137.
- Bligh, C. (2014). *The Silent Experiences of Young Bilingual Learners: A Sociocultural Study into the Silent Period*. Rotterdam, the Netherlands: Sense Publishers.
- Berritzegune Nagusia. (s.f.). Hizkuntzen irakaskuntzarako materiala: ikasgelarako proposamenak. Hemendik berreskuratua: <http://nagusia.berritzeguneak.net/hizkuntzak/htb-3.php>
- Bilbao, X. (1997). Hezkuntza elebidunaren antolakuntza: programa motak. *Hezkuntza elebiduna. Zenbait oinarri*. 69-80. Gasteiz: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Bustos Caparrós, E. R. (2009). El plurilingüismo en el aula. *Revista Digital Innovación y Experiencias Educativas*, 22.
- Cenoz, J. eta Valencia, J. F. (1994). Additive trilingualism: Evidence from the Basque Country. *Applied Psycholinguistics*, 15, 195-207.
- Cenoz, J. eta Valencia, J. F. (1995). El papel del bilingüismo en la adquisición de una lengua extranjera: El caso del aprendizaje del inglés en Gipuzkoa. *Infancia y Aprendizaje*, 72, 127-138.
- Cenoz, J. (2006). The acquisition of additional languages. *ELIA*, 8, 219-224.
- Cummins, J. (1979). Linguistic interdependence and the educational development of bilingual children. *Review of Educational Research*, 49 (2), 222-251.
- Cummins, J. (1983). Interdependencia lingüística y desarrollo educativo de los niños bilingües. *Infancia y Aprendizaje*, 21, 37-61.
- Díaz de Gereñu, L. (2005). Ahozko kontaketa eta eskolako jardura. *Ikastaria*, 14, 31-42.
- Espi, M. J. (1996). Elebitasun aktiboa garatzeko baldintzak edo zergatik egiten zait hain zaila euskaraz hitz egitea? *HIZPIDE*, 36, 28-36.
- Eusko Jaurlaritzak. (2014). Heziberri 2020: Hezkuntza-eredu pedagogikoaren markoa. Hemendik berreskuratua: https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/inn_heziberri_marco/eu_def/ad_juntos/Heziberri_marco_modelo_educativo_pedagogico_e.pdf
- Fessi, I. (2015). La adquisición de terceras lenguas: multilingüismo aditivo y substractivo. *Dirāsāt Hispānicas*, 2, 109-119.
- Hizkuntz Eskubideen Behatokia. (2014). Erregio edo Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Karta. Hemendik berreskuratua: https://kontseilua.eus/app/uploads/2018/12/EUROITUNA_5.EBALUAZIOA.pdf
- Manterola, I. (2010). Euskarazko murgilketa Haur Hezkuntzan: Euskara-Gaztelania elebitasunaren azterketa. Ahozko ipuinen analisi diskurtsiboa eta didaktikoa.

Europako Doktorego Tesia. Vitoria-Gasteiz: Universidad del País Vasco – Euskal Herriko Unibertsitatea.

Moreno, M. E. (2010). El plurilingüismo como necesidad en la sociedad actual. *Pedagogía Magna*, 8, 120-126.

Rodríguez Miñambres, P. (2016). Reflexiones y experiencias didácticas del alumnado del Grado de Educación Primaria sobre el plurilingüismo. *Aprendizajes plurilingües y literarios: nuevos enfoques didácticos*, 197-202.

Ruíz, T. (2008). El tratamiento integrado de lenguas. Construir una programación conjunta. *Textos de didáctica de la lengua y la literatura*, 47, 46-58.

10. ERANSKINAK

10.1. ERANSKINA I: JAKINAREN GAINEKO BAIMENA

Gradu Amaierako Lanaren (GrAL) izenburua: Ama-hizkuntzaren eragina ingeles eta gaztelaniazko gaitasunean: LHko ikasleen kasua

Ikaslea: Myriam Pereda García

Euskal Herriko Unibertsitateko tutorea: Saioa Larraza Arnanz

JAKINAREN GAINEKO BAIMENA

Gradu Amaierako Lan honen helburua da ama-hizkuntza ezberdinen (euskara eta gaztelania) eragina aztertzea hirugarren hizkuntza bat (ingeleza) ikasterako orduan. Horretarako, ama-hizkuntza euskara zein gaztelania duten ikasleak elkarrizketatuko ditugu gaztelaniaz eta ingelesez, haien ahozkotasan-mailan dauden ezberdintasunak konparatzeko. Horrela, zure seme-alabari bi zeregin ezberdin eskatuko dizkiogu. Batetik, galdetegi bat erantzun beharko du hizkuntzekiko duen erabilera, jarrera eta motibazioa ezagutzeko. Eta bestetik, gaztelaniaz eta ingelesez ahozko kontaketa bat egiteko eskatuko diogu. Ahozko jarduna gero linguistikoki aztertu ahal izateko, zure seme-alaba grabagailu baten bitartez grabatuko dugu. Saioak 10 minutu inguru iraungo ditu. Horretaz gain, zuoi, familioi ere, inkesta txiki bat erantzutea eskatuko dizuegu, etxeko hizkuntza-ohiturak ezagutzeko.

Zu eta zure haurraren parte-hartzea guztiz borondatezkoa da eta nahi duzun unean utz diezaiokezu bertan parte-hartzeari. Ikerketan zehar jasotako informazioa anonimoa eta isilpekoa izango da eta soilik ikerketa helburuetarako erabiliko da. Parte-hartzaile bakoitzari kode bat ezarriko zaio, ikerketak sortutako dokumentuetan zu eta zure haurra identifikatuak izan zaitezten saihesteko.

Ikerketa hau UPV/EHU Euskal Herriko Unibertsitateak zuzentzen du, Lehen Hezkuntzako Graduko ikasketen baitan garatzen baita, Saioa Larraza Arnanz irakaslearen tutoretzapean.

Edozein unetan zalantzarik izango bazenu, edo informazio gehiago jasotzea gustatuko balitzaizu, jarri gurekin harremanetan:

- UPV/EHUko irakaslea: saioa.larraza@ehu.eus
- GrAL ikaslea: mpereda006@ikasle.ehu.eus

Ikerketa zertan datzan azaldu didate eta nire zalantzak egokitasunez erantzun dira. Ados nago ikerketan parte-hartzearekin.

Eguna: _____

Seme-alabaren izena: _____

Gurasoen izena: _____



Gurasoen sinadura

Ikaslearen sinadura

Título Trabajo de Fin de Grado (TFG): La influencia de la lengua materna en la competencia de la lengua inglesa y lengua castellana: caso de alumnas/os de Educación Primaria

Alumno: Myriam Pereda García

Tutora de la Universidad del País Vasco, UPV/EHU: Saioa Larraza Arnanz

CONSENTIMIENTO INFORMADO

El objetivo de este Trabajo de Fin de Grado es analizar la influencia de la lengua materna (euskera vs. castellano) a la hora de aprender una tercera lengua como es el inglés. Para ello, vamos a entrevistar alumnas/os que tengan como lengua materna el euskera o el castellano, para posteriormente analizar su competencia verbal en el inglés. Con ese objetivo, pediremos a vuestra/o hija/o la realización de dos actividades. Por un lado, responder un cuestionario para determinar su actitud, uso y motivación lingüística. Por otro lado, realizará dos breves relatos orales (uno en castellano y otro en inglés). Para poder analizar lingüísticamente el relato oral de vuestra/o hija/o, grabaremos su conversación con una grabadora de voz. La sesión durará aproximadamente 10 minutos. Además, también os pediremos a las familias que rellenen un pequeño cuestionario para conocer mejor vuestros hábitos lingüísticos familiares.

Vuestra participación y la de vuestra/o hija/o en este estudio es totalmente voluntaria y en cualquier momento podréis dejar de participar en él, si así lo deseáis. La información que obtengamos será completamente anónima y confidencial, y únicamente utilizada para fines del estudio. Con el fin de preservar el anonimato de los/las participantes, se le asignará un código a cada una/o de ellas/os en el desarrollo de la investigación.

Esta investigación está dirigida por la Universidad del País Vasco (UPV/EHU), dentro del Grado de Magisterio de Educación Primaria, bajo la tutoría de la profesora Saioa Larraza Arnanz.

Si tenéis cualquier tipo de duda u os gustaría recibir más información, no dudéis en poneros en contacto con nosotras:

- Profesora UPV/EHU: saioa.larraza@ehu.eus
- Alumna TFG: mpereda006@ikasle.ehu.eus

Me han explicado en que consiste el estudio y han respondido adecuadamente a mis dudas. Estoy de acuerdo en participar en la investigación.

Fecha: _____

Nombre de la hija/o: _____

Nombre de la madre/padre: _____



Firma de la madre/padre

Firma de la alumna

10.2. ERANSKINA II: IKASLEARENTZAKO GALDETEGIA

IKASLEARENTZAKO GALDETEGIA

1. ADINA:	
2. SEXUA: <input type="radio"/> EMAKUMEZKOA <input type="radio"/> GIZONEZKOA	3. AMA-HIZKUNTZA*: (*txikitatik etxean jasotakoa) <input type="radio"/> EUSKARA <input type="radio"/> GAZTELANIA <input type="radio"/> EUSKARA eta GAZTELANIA <input type="radio"/> BESTE BAT: _____
ZEIN HIZKUNTZATAN HITZ EGITEN DUZU NORMALEAN...	
4. AMAREKIN? <input type="radio"/> EUSKARAZ <input type="radio"/> GAZTELANIAZ <input type="radio"/> EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ <input type="radio"/> BESTE BAT: _____	
5. AITAREKIN? <input type="radio"/> EUSKARAZ <input type="radio"/> GAZTELANIAZ <input type="radio"/> EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ <input type="radio"/> BESTE BAT: _____	
6. ANAI-ARREBEKIN? (izatekotan bakarrik erantzun) <input type="radio"/> EUSKARAZ <input type="radio"/> GAZTELANIAZ <input type="radio"/> EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ <input type="radio"/> BESTE BAT: _____	
7. ETXEAN GUZTIAK BATERA FAMILIARTEAN ZAUDETENEAN? <input type="radio"/> EUSKARAZ <input type="radio"/> GAZTELANIAZ <input type="radio"/> EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ <input type="radio"/> BESTE BAT: _____	
8. IKASTOLAKO LAGUNEKIN? <input type="radio"/> EUSKARAZ <input type="radio"/> GAZTELANIAZ <input type="radio"/> EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ <input type="radio"/> BESTE BAT: _____	
9. AISIALDIAN, IKASTOLAZ KANPOKO LAGUNEKIN? <input type="radio"/> EUSKARAZ <input type="radio"/> GAZTELANIAZ <input type="radio"/> EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ <input type="radio"/> BESTE BAT: _____	
HEZKUNTZA:	
10. AURRETIK D EREDUA EZ DEN BESTEREN BATEAN IKASI AL DUZU? <input type="radio"/> EZ, BETI EUSKARAZKO EREDUAN ARITU NAIZ <input type="radio"/> BAI, B EREDUTIK (ELEBIDUNA) NATOR <input type="radio"/> BAI, A EREDUTIK (GAZTELANIAZKOA) NATOR	

INGELESA:

11. ZENBAT URTEKIN HASI ZINEN INGELESA IKASTEN? _____
12. NON? _____
13. INGELESEKO ZENBAT ORDU DITUZU ASTERO ESKOLAN? _____
14. INGELESA IKASTOLATIK KANPO ERE IKASTEKOTAN,
ZENBAT ORDU DITUZU ASTERO? _____
15. ESKOLATIK KANPO NOIZ ERABILTZEN DUZU INGELESA? (Erantzun bat baino gehiago aukera dezakezu)
- SERIEAK/PELIKULAK IKUSTEKO (nahiz eta azpituluekin izan)
 - ATZERRIRA OPORRETARA JOATEAN
 - LIBURUAK IRAKURTZEKO
 - ATZERRIKO LAGUNEKIN
 - MUSIKA ENTZUN edota ABESTEKO
 - EZ DUT INGELESIK ERABILTZEN ESKOLATIK KANPO
 - BESTE BAT: _____

AUTOEBALUAZIOA: (Adierazi zenbaki batekin 0tik 10era)

16. ZEIN USTE DUZU DELA ZURE AHOZKO GAITASUNA EUSKARAZ? _____
17. ZEIN USTE DUZU DELA ZURE AHOZKO GAITASUNA GAZTELANIAZ? _____
18. ZEIN USTE DUZU DELA ZURE AHOZKO GAITASUNA INGELESEZ? _____

HIZKUNTZEKIKO MOTIBAZIOA eta JARRERA:

19. ORDENATU EUSKARA, GAZTELANIA eta INGELESA ZUK EMANDAKO GARRANTZIA MAILAREN ARABERA:
1. _____
 2. _____
 3. _____
20. ZER GARRANTZIA EMATEN DIOZU INGELESA IKASTEARI?
- OSO HANDIA HANDIA ERTAINA TXIKIA OSO TXIKIA
- ZERGATIK? _____
21. MUNDUAN HIZKUNTZA BAKARRA EGONGO BALITZ, ZEIN GUSTATUKO LITZAIZUKE IZATEA?
- GAZTELANIA
 - EUSKARA
 - INGELESA
 - BESTE BAT: _____
- ZERGATIK? _____
22. ZER IRITZI DUZU ESKOLAN EUSKARAZ IKASTEAREN INGURUAN? (Erantzun bat baino gehiago aukera dezakezu)
- DERRIGORTUTA SENTITZEN NAIZ EUSKARAZ IKASTERA
 - NIRE HIZKUNTZA ETA KULTURA DELAKO BEHARREZKOAK IKUSTEN DUT
 - GUSTURA ETA EROSO SENTITZEN NAIZ EUSKARAZ IKASTEN
 - EZ DAKIT, EZ DUT INOIZ EZ PENTSATU HORREN INGURUAN
 - BESTE BAT: _____
23. ZER IRITZI DAUKAZU ESKOLAN INGELESA IKASTEAREN INGURUAN? (Erantzun bat baino gehiago aukera dezakezu)
- DERRIGORTUTA SENTITZEN NAIZ INGELESA IKASTERA

- ETORKIZUNERAKO BEHARREZKOA IKUSTEN DUT
- GUSTORA ETA EROSO SENTITZEN NAIZ INGELESA IKASTEN
- EZ DAKIT, EZ DUT INOIZ EZ PENTSATU HORREN INGURUAN
- BESTE BAT: _____

24. ESKOLAKO HIZKUNTZA AUKERATU AHALKO BAZENU, ZEIN AUKERATUKO ZENUKE?

- GAZTELANIA
- EUSKARA
- INGELESA
- BESTE BAT: _____

25. ZURE GUSTUKO MARRAZKI BIZIDUNAK EDOZEIN HIZKUNTZATAN IKUSGAI EGONGO BALIRA, NOLA IKUSIKO ZENITUZKE? (Erantzun bat baino gehiago aukera dezakezu)

- GAZTELANIAZ
- EUSKARAZ
- INGELESEZ
- BESTE BAT: _____

26. PORT-AVENTURA MUNDUKO LEKU EZBERDINETAN EGONGO BALITZ, NORA JOANGO ZINATEKE? (Erantzun bat baino gehiago aukera dezakezu)

- GAZTELANIAZ hitz egiten den lekuren batera
- EUSKARAZ hitz egiten den lekuren batera
- INGELESEZ hitz egiten den lekuren batera
- BESTE BAT: _____

27. AUKERA IZATEKOTAN, TABLET-A/ORDENAGAILUA/MUGIKORRA ZEIN HIZKUNTZATAN JARRIKO ZENUKE? (Erantzun bat baino gehiago aukera dezakezu)

- GAZTELANIAZ
- EUSKARAZ
- INGELESEZ
- BESTE BAT: _____

28. ETORKIZUNEAN, ZEIN HIZKUNTZATAN LAN EGITEA GUSTATUKO LITZAIZUKE? (Erantzun bat baino gehiago aukera dezakezu)

- GAZTELANIAZ
- EUSKARAZ
- INGELESEZ
- BESTE BAT: _____

29. NOIZBAIT GURASO IZANGO BAZINA, ZEIN HIZKUNTZATAN HITZ EGINGO ZENIOKE ZURE SEME-ALABARI? (Erantzun bat baino gehiago aukera dezakezu)

- GAZTELANIAZ
- EUSKARAZ
- INGELESEZ
- BESTE BAT: _____

30. MASKOTAREN BAT (TXAKUR, KATU, HAMSTER...) IZANGO BAZENU, ZEIN HIZKUNTZATAN HITZ EGINGO ZENIOKE? (Erantzun bat baino gehiago aukera dezakezu)

- GAZTELANIAZ
- EUSKARAZ
- INGELESEZ
- BESTE BAT: _____

10.3. ERANSKINA III: GURASOENTZAKO GALDETEGIA

GURASOENTZAKO GALDETEGIA / CUESTIONARIO PARA LA FAMILIA

GALDERA OROKORRAK: / PREGUNTAS GENERALES:

1. **ZER FAMILIA ERLAZIO DAUKAZU IKASLEAREKIN? / ¿QUÉ RELACIÓN FAMILIAR TIENES CON EL/LA ALUMNO/A?**
 - AMA / MADRE
 - AITA / PADRE
 - TUTOREA / TUTOR/A
 - BESTE BAT / OTRA: _____

2. **ZEIN DA ZURE SEME-ALABAREN AMA-HIZKUNTZA? / ¿CUÁL ES LA LENGUA MATERNA DE TU HIJA/O?**
 - EUSKARA / EUSKERA
 - GAZTELANIA / CASTELLANO
 - EUSKARA ETA GAZTELANIA / EUSKERA Y CASTELLANO
 - BESTE BAT / OTRA: _____

3. **ZEIN DA ZURE AMA-HIZKUNTZA? / ¿CUÁL ES TU LENGUA MATERNA?**
 - EUSKARA / EUSKERA
 - GAZTELANIA / CASTELLANO
 - EUSKARA ETA GAZTELANIA / EUSKERA Y CASTELLANO
 - BESTE BAT / OTRA: _____

4. **ZEIN DA ZURE IKASKETA-MAILA? / ¿CÚAL ES TU NIVEL DE ESTUDIOS?**

5. **ZEIN DA ZUEN GAUR EGUNGO OGIBIDEA? / ¿CÚAL ES TU PROFESIÓN ACTUAL?**

6. **NOIZBAIT EGON AL ZARA ATZERRIAN IKASTEN/LANEAN? / ¿HAS ESTADO ALGUNA VEZ ESTUDIANDO/TRABAJANDO EN EL EXTRANJERO?**
 - BAI / SÍ
 - EZ / NOERANTZUNA **BAI** IZATEKOTAN, NON? _____ eta ZEIN HIZKUNTZATAN? _____
EN CASO DE RESPUESTA **AFIRMATIVA**, ¿DÓNDE? _____ y ¿EN QUÉ IDIOMA? _____

7. **ZEIN HIZKUNTZA HITZ EGITEN DITUZU? / ¿QUÉ IDIOMAS HABLAS?**

HIZKUNTZEKIKO JARRERA eta MOTIBAZIOA: / ASPECTOS ACTITUDINALES Y MOTIVACIONALES:

8. ORDENATU EUSKARA, GAZTELANIA eta INGELESA ZUK EMANDAKO GARRANTZIA MAILAREN ARABERA: / ORDENA EL EUSKERA, CASTELLANO E INGLÉS SEGÚN LA IMPORTANCIA QUE LES DAS:

1. _____
2. _____
3. _____

9. ZER GARRANTZIA EMATEN DIOZU ZURE SEME-ALABAK EUSKARAZ IKASTEARI? / ¿QUÉ IMPORTANCIA LE DAS A QUE TU HIJA/O ESTUDIE EN EUSKERA?

- OSO HANDIA / MUY GRANDE
- HANDIA / GRANDE
- ERTAINA / MEDIA
- TXIKIA / POCA
- OSO TXIKIA / MUY POCA

10. ZER GARRANTZIA EMATEN DIOZU ZURE SEME-ALABAK INGELESA IKASTEARI? / ¿QUÉ IMPORTANCIA LE DAS A QUE TU HIJA/O ESTUDIE INGLÉS?

- OSO HANDIA / MUY GRANDE
- HANDIA / GRANDE
- ERTAINA / MEDIA
- TXIKIA / POCA
- OSO TXIKIA / MUY POCA

11. ZURE SEME-ALABA HIZKUNTZA BAKARRAREKIN GERATU BEHARKO BALITZ, ZEIN AUKERATUKO ZENUKE? / SI TU HIJA/O SOLO PUDIERA HABLAR UN IDIOMA, ¿CUÁL ELEGIRÍAS?

- EUSKARA / EUSKERA
- GAZTELANIA / CASTELLANO
- INGELESA / INGELESA
- BESTE BAT / OTRO: _____

12. ZERGATIK ERABAKI ZENUEN ZURE SEME-ALABAK D EREDUAN IKASTEAREN? / ¿POR QUÉ DECIDISTE QUE TU HIJA/O ESTUDIASE EN MODELO D?

13. ZERBAIT EGITEN AL DUZU ESKOLATIK KANPO ZURE SEME-ALABAREN INGELESMAILA HOBETZEKO? / ¿HACES ALGO PARA INTENTAR POTENCIAR EL INGLÉS DE TU HIJA/O FUERA DEL ÁMBITO ESCOLAR?

- BAI / SÍ; ZER? / QUÉ? _____
- EZ / NO

14. ETXEAN ZEIN HIZKUNTZATAN IKUSTEN DA TELEBISTA NORMALEAN? / ¿EN QUÉ IDIOMA SOLÉIS VER LA TELEVISIÓN EN CASA? (Erantzun bat baino gehiago aukera dezakezu / Puedes elegir más de una respuesta)

- EUSKARAZ / EN EUSKERA
- GAZTELANIAZ / EN CASTELLANO
- INGELESEZ / EN INGLÉS
- BESTE BAT / OTRO: _____

10.4. ERANSKINA IV: ELKARRIZKETA GIDATUAREN GIDOIA

INGELESEZ:

- Hi "her/his name"! How are you?
- Christmas is almost here; do you feel like going on holidays and not coming class for some days?

Now, I am going to make you some questions about Christmas for the research, and at the end if we have time, I will make you others about different topics. All right?

- What do you do normally in Christmas?
- Have you got some special habit in your family? (for example: eat lamb in New Year, play Secret Santa...)
- You used to stay here in Vitoria-Gasteiz during Christmas? Or you usually go to another place?
- How do you celebrate New Year's Eve?

OK, thank you! We have already finished with Xmas, but now I will make you a couple of easy questions to finish the task. Everything is OK?

- What is your favourite sport?
 - o Why?
 - o And, do you practice "the name of the sport"?
- I know that you have learnt the professions at class, so could you tell me what is your mother's profession?
 - o And your father's?

Thank you very much "her/his name"! Your collaboration will help me a lot with the research. Thank you!

GAZTELANIAZ:

- ¡Hola "bere izena"! ¿Qué tal estas?
- Las Navidades están casi al llegar, ¿tienes ganas de irte de vacaciones y dejar la escuela por unos días?

Ahora, voy a hacerte algunas preguntas sobre las Navidades para la investigación, y al final, en caso de tener tiempo, te haré alguna otra sobre diferentes temas. ¿Entendido?

- ¿Qué hacer normalmente en Navidades?
- ¿Tenéis algún hábito especial en vuestra familia durante estos días? (por ejemplo: comer cordero en Año Nuevo, jugar al amigo invisible...)
- ¿Sueles estar en Vitoria-Gasteiz o soléis ir a algún otro lugar?
- ¿Cómo sueles celebrar el día de Nochevieja?

¡Muchas gracias! Ya hemos acabado con la parte de las Navidades, pero ahora te voy a hacer un par de preguntas fáciles para acabar con la tarea. ¿Todo bien?

- ¿Cuál es tu deporte favorito?
 - o ¿Por qué?
 - o ¿Lo practicas?
- Puedes decirme ¿de qué trabaja tu madre?
 - o ¿Y tu padre?

¡Muchísimas gracias "bere izena"! Tu aportación me va a ser de gran ayuda para mi investigación. ¡Gracias!

10.5. ERANSKINA V: GRABAZIOEN TRANSKRIPZIOAK

10.5.1. H1_EUS_1 (10'01")

